


# urtea joan, urtea etorri



barrenet 9. ikastunitatea  
2. maila  
irakaslearena

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:  
Kordinatzaile didaktikoak:

**Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
**Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
**Joseba Ezeiza** (Legazpi 6 Euskaltegia)  
**Mikel Dorronsoro** (HABEko teknikaria)

Partehartzaileak:  
Errealizazio didaktikoa:

© HABE 2001 ISBN: 84-86968-47-X  
Legezko Gordailua: SS-174/02

Inprimaketa: **Gertu Inprimategia. Oñati**

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio *Legazpi 6* euskaltegiari proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

*Hamaika Korapilo eta Sorginen laratza* saioak. ETB

*Mr. Bean*. ETB

Dinamita. *Tricycle*. ETB

GKE iragarkia. ETB

*Goizean behin*. Euskadi Irratia

*Lauretan babel*. Euskadi Irratia

Siegrist, E. Cómo reconocer a un adicto al consumo. *QUO*, 86. zenb.

Gabonak munduko leku batzuetan. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

Lege aholkularitza. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

Ondo pentsatu urtarrileko aldapa... *Consumer aldizkaria*, 13. zenb.

Olentzeroren orria, [www.jalgi.com](http://www.jalgi.com)

# urtea joan, urtea etorri

barrenet 9. ikastunitatea  
2. maila

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua  
irakaslearena

## Hitzaurrea

Helduen Euskalduntzen Kurrikulua garatzeko xedez, hainbat ikas-material eman zuen iaz argitara HABEk, Kurrikuluaren maila bakoitzari zegozkion zortzi ikastunitate hiru sailetan banatuak, *Barrene*, 1B mailarako, *Barrenet 2.* mailarako, eta *Barrenkale 3.* mailarako.

Materialgintza-proiektu horri jarraituz, eta euskaltegien partaidetza bultzatu asmoz, 2000ko uztailaren 28an HABEren zuzendari nagusiak ikas-materialak sortzeko dirulaguntza-deialdia egin zuen.

Deialdi horri erantzunez, euskaltegiek burututako ikastunitateak dituzu orain argitara ematen direnak. Bertan aurreko sailez gain 1 A mailarako Barrendik izeneko sailari dagozkion ikastunitateak ere argitaratu dira.

Nire eskerrik zintzo eta beroenak eman nahi dizkiet proiektu honetan parte hartu duten euskaltegiei, eta aurrerantzean ere lankidetzaren parte hartzerari bultzatu nahi zaituztet, ziur bainaiz materialgintza-proiektu honek euskararen ikas-irakas prozesua bideratzeko eta hobetzeko funtsezko baliabideak eskaintzen dizkiela euskaltegiei.

Jokin Azkue Arrastoa  
HABEren zuzendari nagusia



## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |   |   |
|---|---|
| 1. Irakaslearentzako oharra               | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea             | 7 |
| 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak | 9 |

### 2. Atzak

- |   |    |
|---|----|
| <b>A Ataza:</b> Haurren gozamina          | 11 |
| <b>B Ataza:</b> Opari sinbolikoa          | 15 |
| <b>C Ataza:</b> Kontsumoa Gabonetan       | 17 |
| <b>D Ataza:</b> Merkealdien zurrunbilan   | 19 |
| <b>E Ataza:</b> Kontsumo-adikzioa         | 23 |
| <b>F Ataza:</b> Hainbeste behar ote dugu? | 27 |

### 3. Eranskinak

- |                        |    |
|------------------------|----|
| 1. Bideo-pasarteak     | 29 |
| 2. Irrati-pasarteak    | 38 |
| 3. Irakaslearen fitxak | 45 |

### 4. Material osagarriak

- |   |    |
|---|----|
| <b>C Ataza:</b> Kontsumoa Gabonetan     |    |
| 1. Gabonak munduan                      | 48 |
| <b>D Ataza:</b> Merkealdien zurrunbilan |    |
| 2. Lege-aholkularitza sarean            | 50 |

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Jakina denez, kontsumoa da gure gizartearen ikur nagusietako bat. Kontsumoa da ekonomiaren funtsezko motorea; aisialdia kontsumoari estuki lotuta dago eta kontsumo-jokabideak kezka-iturri dira azken bolada honetan.

Baina, kontsumoa, batez ere, gertakari soziala da eta hori guztiz ageriko egiten da urte bat amaitu eta bestea hasten denean; izan ere, garai horretan Gabonak eta merkealdiak kateatzen zaizkigu eta zaila egiten zaigu tentazioa saihestea. Ikastunitate honetan horri buruz arituko gara.

Unitatearen hasieran, Gabonez arduratuko gara. Umeei erosten dizkiegun opariez hitz egingo dugu; ikaskideei opari sinboliko bat egingo diegu eta Gabonetan gastuak neurtzeko zenbait ideia bilduko ditugu.

Jarraian, urtearen lehen egunekin, merkealdien zurrumbiloan murgilduko gara. Ikusiko dugu zer den gehienbat erosten duguna merkealdietan, nola egin erosketa zuhurra eta zer egin dezakegun erositako zerbait gustatzen ez zaigunean. Ondoren, bigarren atalean, kontsumoa dela eta sortzen diren arazoez jardungo dugu eta, bide batez, hausnartuko dugu geure kontsumo-jokabide batzuen zentzugabekeriaz.

Gainera, nahi izanez gero, beste aukeren artean, Interneten nabigatu ahal izango dugu gai honen inguruan dauden web-orri eta aldizkari elektroniko batzuetan barrena.

Hori guztiarekin, aholkuak, gomendioak eta proposamenak egiteko modu eta aukera ezberdinak landuko ditugu.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (6. or)

### A ATAZA: HAURREN GOZAMENA

- Gabonen inguruan ditugun oroitzapenak alderatu
- Olentzerori eskutitza idatzi umetan egingo genukeen bezala
- Olentzerori zuzendutako hainbat eskari zein adineko umeek egin ote duten asmatu
- Aholku batzuen goiburua idatzi eta ordenatu
- Haur baten eskutitzari erantzun idatziz Olentzeroren izenean (11. or. irak. lib.) (9. or. ik. lib.)

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ

### B ATAZA: OPARI SINBOLIKOA

- Oparitu ohi diren gauzak zerrendatu eta sailkatu
- Oparitan gutxiago gastatzeko iradokizunak egin
- Opari bat hautatu ikaskide batentzat eta gabonetako postala idatzi opariarekin batera emateko
- Irratsaio batean ematen dituzten instrukzioak jaso eta horiei jarraituz "airean idatzitako postala" egin (15. or. irak. lib.) (14. or. ik. lib.)

MINTZ/IDAZ/ENTZ

## OSAGARRIAK

### 1. GABONAK MUNDUAN

- Gabonak ospatzeko ditugun ohiturak zerrendatu
- Munduko beste tokietako ohiturei buruz Interneten aurkitutako testu laburrak irakurri
- Gaiari buruzko irratsaioa grabatu
- Alderatu hemengo eta kanpoko ohiturak
- Kanpotik ekarritako ohitura bat deskribatu
  - Kanpoko ohiturak geurera ekartzeari buruz eztabaidatu (48. or. irak. lib.) (35. or. ik. lib.)

IRAK/MINTZ

### C ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN

- Hitz gakoak harremanetan jarri
  - Definizioak entzun eta hitz gakoak harrapatu
- Gaiarekin lotutako ideien mapa osatu, tertulian esandakoa kontuan hartuz
- Azterbide batean oinarrituz, testu laburra idatzi
- Gabonak gozatzeko dekalogoia idatzi (17. or. irak. lib.) (18. or. ik. lib.)

ENT/MINTZ/IDAZ

### D ATAZA: MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN

- Merkealdietan ohi dugun jokabidea azaldu
- Merkealdietan ondo erosteko aholku zerrenda batean ezabatutako hitzak berreskuratu
- Merkealdiek dituzten arriskuen zerrenda eta horiei aurre egiteko neurrien inguruko zerrenda egin
- "Merkealdietan, kontuz" testua idatzi talde osoaren artean (19. or. irak. lib.) (22. or. ik. lib.)

MINTZ/IRAK/IDAZ

## OSAGARRIAK

### 2. LEGE-AHOLKULARITZA SAREAN

- Zenbait hitzen definizioa eman eta alderatu aditu batenarekin
- Aditu baten aholkuak jaso zerrenda batean
- Erositakoarekin gustura gelditu ez diren hainbat pertsonaren kasuak aztertu eta aholkuak eman irratsaio batean
- Zuzenbidearekin lotutako hitzen esanahia argitu
- *Consumer elektronikora* jo eta dituen atalak eta eskaintzen dituen zerbitzuak ikusi
- *Consumer elektronikoan* kontsulta bati emandako erantzuna irakurri eta eztabaidatu zein ote den sorburuko arazoa
- Kontsulten ataletik interesgarria iruditu zaien kasuren bat hautatu eta ikaskideekin komentatu (50. or. irak. lib.) (38. or. ik. lib.)

IRAK/ENTZ/MINTZ/IDAZ

### E ATAZA: KONTSUMO-ADIKZIOA

- Kontsumo-adikzioaren fase ezberdinen ezaugarriak bereiztu eta sailkatu
- Kontsumo-adikzioaren ezaugarriak azaltzen dituzten azalpen laburrak eta horien izenburuak lotu
  - Kontsumo-adikzioaren arrazoi ezberdinak zerrendatzen dituzten testuei izenburua jarri eta ordenatu
  - Arazo honen ondorioen zerrenda bat egin eta artikulua jasotzen duenarekin alderatu
  - Gaiari buruzko hiru galderei erantzun ahoz
  - Alderatu erantzunak aditu batenekin
  - Aholku zerrenda batean, hasiera irakurrita pasartearen amaiera idatzi eta alderatu jatorrizkoarekin
  - Norberaren eroste-jokabideak azaldu (23. or. irak. lib.) (27. or. ik. lib.)

IRAK/MINTZ/IDAZ

### F ATAZA: HAINBESTE BEHAR OTE DUGU?

- Zerrendatu zein produktu kontsumitu ohi dugu etxeko hornitzeko eta geure burua eta seme-alabak hezteko; nolako kultur gaiak erosi ohi ditugun eta nolako produktuak erabili ohi ditugun osasuna zaintzeko
- Iragarki bat ikusi eta balorazioak egin geure kontsumo-azturen gainean
- Proposamenak egin bizimodua sostengarriagoa egite aldera
- Zenbait pentsalariren esaldiak komentatu (27. or. irak. lib.) (32. or. ik. lib.)

ENTZ/MINTZ/IDAZ/IRAK



### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### HELBURU NAGUSIA

- Gabonetan eta urte hasierako merkealdi-garaian eman ohi diren kontsumo-jokabideak aztertzea eta proposamenak egitea kontsumo-maila mugatzeko.

#### HIZTEGIA

- **Gabonak:** Jaiotza, ospakizuna, Urtezaharra, panpina, eraikuntza, mozorroak, jan-edanak, apaingarriak, ohiko opariak...
- **Opariak:** Apaingarriak, bitxiak, lurrina, gabonetako saskia, sakelako telefonoa...
- **Kontsumoa:** Gertakari sozioekonomiko, jokabide pertsonala, kontsumo neurtua, neurrigabeko kontsumoa, bidezko kontsumoa, kreditu-txartela, gastuen kontrola, gutzia, zerrenda, ordainketa, hutsala, kezkarria, baimendua, zorpekoa, zorra...
- **Merkealdiak:** Trikimailua, pagotxa, saldoa, likidazioa, tentazioa, ilara, aldapa, eskubide, baldintzak, etiketak, itxurak egin, -ena egin, -i aurreratu, -i muzin egin, aurea hartu, azal lodia izan, mozolo pintoa izan, arineketan, pozarren, haserre eromena, arakatu, nahasian...

#### MINTZAGAIAK

- Gabonak eta haurren eskariak **(A)**
- Opariak gabonetan **(B)**
- Kontsumoa gabonetan **(C)**
- Merkealdien arriskuak **(D)**
- Kontsumo-adikzioa **(E)**
- Bidezko kontsumoa **(F)**

#### ELKARRERAGINA

- Esperientziak, oroitzapenak, jokabideak komentatzea **(A) (B)**
- Aholku-zerrendak eratzea elkarreragin eredu ezberdinak erabiliz **(A) (B) (C) (D) (E) (F)**
- Ikaskide/irakasleei aholkuak eta eskutitzak ematea **(A) (B)**
- Taldean, kontzeptuak eta ideiak sailkatzea mapak eratzuz **(C) (E) (F)**
- Hipotesiak egitea testuen edukiaren eta egituraren gainean **(E) (C) (F)**
- Taldekideek egindako testuen artean bat hautatzea **(B) (F)**
- Testuetatik erauzitako informazioa erabiliz molde ezberdineko ahozko jardunak egitea (elkarrizketak, irratiko magazina, eztabaidak...) **(E) (D) (C)**

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Idazlearen adina igartzea testuaren edukiari eta estiloari erreparatuz **(A)**
- Xede komunikatiboa hobekien erdiesten duen testua hautatzea **(B) (F)**
- Tertulia batean botatako ideien arteko loturak argitzea **(C)**
- Testuen (ahozko eta idatzien) edukia eta antolaketaren gaineko aurreikuspenak egitea **(C) (D) (E) (F)**
- Testu bat (ahozkoa zein idatzia) berreraikitzea informazioa egituratzeko emandako irizpideei jarraituz **(C) (D)**
- Testu batean egindako hutsuneak betetzea hitz egokia erabiliz **(D)**
- Emandako instrukzioak ulertzea eta horiei jarraituz testu bat eratzea **(B)**
- Xede ezberdineko eskutitzak idaztea testuinguruko baldintzak aintzat hartuz **(A) (B) (D)**
- Testu arau-emaileak idaztea tonu umoretsuan eta tonu serioan **(D)**
- Testuen edukiaren berri ematea testuinguru ezberdinetan eskutitzak, gomendioak, ikusitako bideo-pasarteak edota irakurritako artikulua abiapuntu **(A), (B) (D)**
- Irratiaren (balizko/benetako) testuinguruan zorion-eskaintzak, entrebistak eta erreportaje laburrak egitea edota entzuleen kontsultei erantzutea ahoz **(B) (E)**

## GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

---

- Aholku zerrenda batean ezabatutako izenburuen ordezkioak proposatzea **(A)**
- Hainbat diskurtsotan identifikatutako aholkuak eta azalpenak sailkatu eta bereiztea **(B)**
- Aholkuen berri ematea zehar-estiloan, balorazioak erantsiz **(A) (B)**
- Ikaskide guztien ekarpenak erabiliz nor bere bururako aholku zerrenda bat idaztea **(C)**
- Aholkuak idatziz formulatzeko hiztegia lantzea **(D)**
- Zerrenda bateko aholkuen idazketa osatzea, emandako esaldi-zatiari jarraipena emanez **(E)**
- Aholku-sorta bat eskaintzea bizimodu bidezkoagoa aldarrikatzen duen esku-orrian **(F)**

# ATAZA: HAURREN GOZAMENA 265'

## Helburu nagusia:

- Hautxoek gabonetan nolako opariak eskatzen dituzten aztertu ondoren eta emandako aholkuei jarraiki, gutun bat idaztea Olentzeroren izenean.

## Helburuak:

- Esperientziak, oroitzapenak, jokabideak komentatzea.
- Idazlearen adina igartzea testuaren edukiari eta estiloari erreparatuz.
- Irakurritako eskutitzen eta artikuluen berri ematea.
- Ikaskide / irakasleei aholkuak ematea eta eskutitzak idaztea.
- Aholku idatzien multzo bat zerrendatzea.
- Aholku zerrenda batean ezabatutako izenburuen ordezkioak proposatzea.
- Aholkuen berri ematea zehar-estiloan, balorazioak erantsiz.

## Zertan den:

- Gabonen inguruko oroitzapenak alderatuko dituzte ikasleek bere artean. Bestalde, Olentzerori eskutitza idatzi beharko diote umetan egiten zuten bezala, baita horietako eskari batzuk zein adineko umek egin dituen asmatu ere. Azkenik, Olentzeroren izenean, haur baten eskutitzari erantzungo diote idatziz.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Arbelean idatzi ataza honetan erantzungo dituzten hiru galderen lehen zatiak eta asma dezatela zer falta den. (5')
  - Zein dira txikitan jasotako gabonetako...?
  - Gabonetatik zer...?
  - Nola jakin zenuen...?
- Alderatu erantzunak. (5')

### Ataza: galderari erantzun eta erantzunak alderatu

- Taldetxotan jarrita esperientziak trukatu eta zerrendatuko dituzte. Taldekide batek emango du erantzunen berri ahoz talde osoari; taldekideek galderak egin ahal izango dizkiote. (10')
- Taldetxoetan berriro bilduta, bigarren taula osatuko dute. Taldekide batek emango du egindako hausnarketaren berri ahoz. Besteek beren azalpena egingo dute jarraian eta aurrekoek esandakoarekin ados dauden ala ez adieraziko dute. (10')

### Feedbacka

- Amaitzeko hitz egin daiteke Gabonak ospatzeko moduetan ezagutu ditugun aldean inguruan. (5')

### Gramatika eta diskurtsoa: sailkapenak eta kontrastea egiteko baliabideak. Zehar estiloa

- Ataza honetan ikasleek azalpenak emateko bi egituratze-molde ezberdin erabiliko dituzte: sailkapena eta kontrastea. Grabatu talderen batean egindako azalpenak eta ikasleek identifika ditzatela bi eragiketak eta horiek bideratzeko erabilitako baliabideak (*batetik, bestetik, ordea...*). (15')
- Bestalde, ikasleek esandakoaren berri zeharka emango dute. Irakasleak, ataza egiten duten bitartean, erreparatuko dio **zehar-diskurtsoa** eratzeko moldeari. Atazaren amaieran entzundakoaren arabera, akatsak komentatuko ditu edota izandako zailtasunak ikasleekin eztabaidatuko ditu. (10')

2

**Atazaurrea**

Aldez aurretik eskatu ikasleei ekartzeko ikasgelara, gordeta baldin badituzte, txikitan Olentzerori edota Erregeei idatzitako eskutitzak, argazkiak, txikitan egindako marrazkiak, gordeta duten opari gogoangarriren bat...

- Atazari ekin aurretik, arbelean zerrendatu nolako gauzak eskatzen zituzten, nolakoak ziren gutunak (laburrak, luzeak, marrazkia eransten ote zieten...).(5')
- Ondoren eskatuko diegu garai hartan egiten zituztenen moduko gutun bat idatz dezatela, baina, jakina, oraingoan euskaraz. (15')

**Ataza: gutunak irakurri eta idazlearen adina igarri**

- Taldetxotan jarrita, emandako hiru eskutitzak irakurriko dituzte; erabaki behar dute zein adinetako haurrak idatzi duen. Ematen zaien taulan jasoko dituzte hori pentsarazten dieten arrazoiak. Talde osoari emango diote erabakitakoaren berri. (10')

ZUZENKETA-ORRIA		
	ESKUTITZA	ARRAZOIAK
8 urtetik beherako haurra	A	Amak idatzia da
8 urteko haurra	B	Lehen hezkuntzako 1.mailan dagoela dio
12 urteko haurra	C	Gutuna landuagoa; ironia eta umorea

- Olentzerori ahoz egindako eskaera (**1. Irrati pasartea \***) entzungo dute; aurrekoan bezala eztabaidatuko dute zenbat urte ote dituen haurrak (5 urte, 2000. urteko Gabonetan). (10')

**Feedbacka**

- Irakasleak gutunak irakurriko ditu; zirriborro horiek itzuliko dizkie ikasleei hainbat iruzkin eginda. Eskatuko die berridazteko hasieran egindako testua. (15')

**Gramatika eta diskurtsoa: argudioak**

- Ataza honetan ikasleek beren hipotesiak argudiatu egin beharko dituzte. Irakasleak erreparatuko die argudioak diskurtsoan txertatzeko erabilitako baliabideei. Hainbat adibide idatziko ditu arbelean eta ikasleek esan beharko dute zein baliabide gramatikal erabil litekeen esaldi horiek lotzeko (*izan ere, ze, bait, -lako, eta...*). (5')

**Atazaostea**

- Horren ondoren, azken 20-30-40 urtean umeen gustu eta jokabideetan emandako aldaketez hitz egingo dute. (10')

3

**Atazaurrea**

- Ikasleei eskatuko diegu azaltzeko familiako umei zer nolako opariak egiteko asmoa duten Gabonetan eta zergatik egin duten aukera hori. (5')
- Denen artean saiatuko zarete jostailuak erosteko irizpideen zerrenda orokorra egiten. (5')

**Ataza: aholku-multzo bati goiburuak idatzi eta ordenatu**

- Taldetxotan jarriko ditugu ikasleak. Talde bakoitzean aholkuei goiburu bana idatziko diete. Aholkuak gustuko duten ordenan jarriko dituzte. (20')

\* Jon Ezeiza

- Beste taldetxoek egindako ordenarekin alderatuko dituzte. (15')

## Feedbacka

- Jatorrizko aholku-zerrenda emango diegu, beraiek egindakoarekin alderatzeko. (10')

### ERANTZUN-ORRIA

Jostailu bat erosterakoan kontuan hartu beharrekoak:

Oso garrantzitsua da haurrentzako jostailuak erosterakoan hainbat gauza kontuan hartzea, haurra hezteko tresna baitira jostailuak. Hauexek dira, besteak beste, erosteko gomendioak:

**Imajinazioa lantzeko jostailuak:** Haur txikienetan batez ere, oso garrantzitsua da irudimena landuko duten jostailuak erostea, haurraren garapenari lagun diezaioten.

**Gutxi eta maiz:** Haurrari jostailuak maiz erosi behar zaizkio. Gabonetan soilik erostea ez da komeni. Urteko egun guztiak ditu haurrak bere garapenerako. Gainera, Gabonetan askotan behar ez diren jostailuak erosten dira.

**Eskatzen zaiona erosi:** Haurrak eskatzen duena erosi behar da, baina betiere neurri baten barruan. Erosi ezin bada, edota gurasoei gehiegizkoa iruditzen bazaie, arrazoitu egin behar zaio zergatik ezin den erosi. Hala ere, garrantzitsua da haurrari gustuko duena eskaintzea, gustuko gauzeekin hobeto landuko baititu nahiak, desioak, gustuak...

**Sexurik gabeko jostailuak:** Askotan jostailuen merkaturia gizartearen atzetik doa. Oraindik generoa oso markatua duten jostailuak daude merkaturan. Hala ere, sexurik gabeko jostailuak gero eta gehiago dira, eta, didaktika aldetik ikusita, oso komenigarriak.

**Adinaren araberrakoak:** Adinak oso markatzen ditu jostailuak. Hainbeste urte, halako jostailuak. Adinaren arabera, oso jostailu interesgarriak daude. Haurrak duen ulermenaren araberrako jostailua erostea oso garrantzitsua da. Irudimena lantzekoak oso kontuan hartzekoak dira.

**Ongi pentsatzea:** Haurrek zer nahi duten eta gurasoek haiek zertan ibiltzea nahi duten kontuan hartuta, elementu horien bila joatea da onena. Gabonetan eskainitakoak, baina jostailu egokiak erostea komeni da.

## 4

### Ataza: gutun bati erantzuna idatzi

- Bigarren atalean aztertutako gutunak taldeen artean banatuko ditugu. Erabaki behar da aurrekonturako muga bat eta eztabaidatu zer oparituko diegun eta zer ez. Arrazoitu. (10')
- Ikasleek banaka erantzun-gutuna idatziko dute taldean erabakitakoaren araberrera. (15')

## Feedbacka

- Hiru edo lau laguneko taldetxotan jarrita irakurriko dute idatzitako testua; ikaskideek egiaztatuko dute taldean erabakitakoa ondo jasotzen dela gutunean. Hala izan ezik, zer aldatu behar duen esango zaio idatzi duenari. (10')

### Gramatika eta diskurtsoa: zehar-estiloa / gutunen egitura

- Ataza honetan aholku batzuk forma inbertsonaletik forma pertsonalizatura aldatu beharko dituzte (Ez da komeni... uste dut zuretzat ez dela komenigarria...). Irakasleak horri erreparatuko dio eta, ikasleak lanean ari direla, zenbait adibide jasoko ditu. Arbelean idatziko ditu eta eskatuko die berridazketa egiteko. (5')
- Irakasleak hautatuko du ikasleek idatzitako bi edo hiru gutun. Gutunen egitura lantzeko, bi gutunetako paragrafoak nahasirik emango dizkie ikasleei ordena ditzaten. Gutunen eskema aterako dute. (10')
- Atalen arteko loturak lantzeko, gutun batean edo bitan ezabatu egingo ditu pasarteak lotzeko erabilitako egiturak edota esaldiak. Ikasleek berreskuratu egingo dituzte. (10')

### Atazaostea

- Nahi izanez gero, ikasleek eztabaidatuko dute zein taldetakoak izan diren zorrotzenak eta zein eskuzabalenak, zeinek segitu dieten artikuluan emandako aholkuei eta zeinek ez, haurra konforme uzteko moduko argumentuak eman dituzten ala ez... (10')
- Antzeztea dute haurrak opariak eta eskutitza jasotzen duen momentua. Gurasoek haurrari eskutitza irakurriko diote ozenki eta azalpen osagarriak emango dizkiote; haurrak, bere aldetik, galderak egingo dizkie eta bere postura argituko die. (10')

# ATAZA: OPARI SINBOLIKOA 240'

## Helburu nagusia:

- Ikaskideei eta irakasleari opari sinbolikoak eskaintzea Gabonetako eskutitz baten edota irratiko zorion-eskaintza baten bitartez.

## Helburuak:

- Esperientziak, oroitzapenak eta jokabideak komentatzea.
- Ikaskideei Gabonetako eskutitzak idaztea.
- Ikaskideek jasotako eskutitzaren berri ematea, azalpenak erantsiz.
- Emandako instrukzioak ulertzea eta, horiei jarraituz, zorion-eskaintza bat grabatzea irratira bidaltzeko.
- Dirua aurrezteko aholku-zerrenda orokor bat eratzea, kasu partikularretarako emandako aholkuetatik abiatuta.
- Hainbat diskurtsotan aurkitutako aholkuak eta azalpenak bereizi eta sailkatzea.

## Zertan den:

- Oparitu ohi diren gauzak sailkatu eta ordenatzeaz gain, gutxiago iradokizunak egingo dituzte ikasleek. Gero, opari bat hautatuko dute ikasle batentzat eta Gabonetako postala idatziko diote opariarekin batera emateko.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Arbelean OPARIAK hitza jarri eta mapa semantikoa eratzeko adarrak marraztu. Eskatu ikasleei adar bakoitzean hitz gako bat jartzeko. Ondoren, alderatu ikaslearen liburuan dagoenarekin eta hautatu bat aurrera segitzeko. (10')
- Taldetxotan bilduta, ikasleen liburuan jasotako mapa-semantikoa osatu behar da. Denon proposamenak bateratu behar dira. (10')
- Eskatu ikasleei mapa horren azalpena egin dezatela ahoz. (Opari-mota ezberdinak egiten ditugu Gabonetan; batzuetan...) (5')

### Ataza: aurrekontua egin eta gastuak arintzeko aholkuak eman

- Banaka, ikaslearen liburuan duten taula osatuko dute. Saiatuko dira ahalik eta gehien hurbiltzen benetan egingo duten gastura. (5')
- Aurrekontuak trukatu eta elkarri aurrezteko aholku zehatzak eman. Ikaslearen liburuan dagoen taula bete eta ikaskideari eman, iradokizunak idatziz. (15')
- Eztabaidatu iradokizunen gainean. (5')

### Feedbacka

- Norberak taldeari azalduko dio zein zen bere aurreikuspena, nolako iradokizunak egin dizkieten eta aintzat hartuko dituen ala ez. Justifikatu egin beharko dute hori guztia. (15')

### Atazaostea

- Taldetxotan jarrita, Gabonetan gutxiago gastatzeko aholku zerrenda orokor bat eratuko dute. Horretarako ikaskideek elkarri egindako iradokizunetatik abiatuko dira. (10')
- Aholkua modu zehatzean formulatuko dute (esaldi bat edo, gehienez, bi) eta alboan azalpen bat erantsiko diote. (10')

### Gramatika eta diskurtsoa: aholkuak formulatzeko eta azaltzeko moduak

- Irakasleak aholku-zerrendak jasoko ditu. Ikasle ezberdinek idatzitako hainbat aholku hautatuko ditu. Aholku horiei ikasleek erantsitako azalpenak nahasirik emango dizkie ikasleei. Beraiek lotu beharko dituzte aholkuak eta azalpenak. (5')
- Ikasleei eskatuko die denen idaztankera bateratzeko. (10')

## 2

**Atazaurrea**

- Ikaslearen liburuan dagoen taula erabiliz, opari ezberdinak pertsonalak ala edonorentzako modukoak ote diren erabaki beharko dute. (5')
- Ikasle bakoitzak zotz eginda tokatu zaion ikaskidearentzat opari bat proposatu eta aukeraren zergatia azalduko du. (10')

**Ataza: ikaskideei opari sinbolikoa egin**

- Binaka, beste ikasleren bati bidaltzeko postala aukeratu. Arrazoitu hautua. (Postal multzo bat ekarri edo ikasleei ekartzeko esan.) (5')
- Postalarekin batera nolako oparia igorriko dioten hautatuko dute. Izan liteke beraiek egindako marrazki bat, poema bat... "Benetako" zerbait igorri diotela postalarekin batera irudika daiteke. Kasu honetan erantsi dezatela opariaren argazki bat (aldizkari edota katalogoren batetik moztua, adibidez). Postala idatzi eta dagokionari emango diote. (15')

**Feedbacka**

- Ikaslearen liburuan emandako aholkuei jarraiki, bakoitzak taldekideei azalduko die zer iruditu zaieon postala, zer dioen testuak eta zer iruditu zaion oparia. (5')

**Gramatika eta diskurtsoa: argudioak / gutunen sarrerak**

- Ikasleek iritziak adierazten eta balorazioak egiten jardun dute; azter liteke erabilitako formulak. A atazan bezalaxe, irakasleak ikasleek ahoz egindako hainbat pasarte ekar ditzake arbelera argudioak sartzeko jatorriz erabilitako egitura ezabatuta. Ikasleek proposatuko dituzte enuntziatuak lotzeko moduak. (5')
- Ikasleek egindako gutunen artean irakasleak bat hautatuko du (sarrera txukuna duen bat) eta sarrera ezabatuko dio; ikasleak saiaturiko dira sarrera berreskuratzen. Jatorrizkoarekin alderatuko dute. (15')

## 3

**Atazaurrea**

- Taldetan jarrita, hipotesiak egingo dituzte "airean idatzitako postala" zer ote den. Horretarako, ikasleen liburuan eskaintzen zaien aukerak aztertuko dituzte. (5')

**Ataza: instrukzioak ulertu eta, horiei jarraiki, "airean idatzitako postala" grabatu**

- Irratsaioa entzun ahala (2. **Irrati pasartea** \*\*), ikaslearen liburuan duten taula bete dezatela. Alderatu ditzatela hartutako oharrak. (15')
- Bigarren entzunaldian xehetasun eta argibide gehigarriak jasoko dituzte. Jasotako oharrak antolatu eta bateratuko dituzte. (10')
- Irakasleari zuzendutako "airean idatzitako postala" egin behar dute taldeka. Postalera proposamenak eztabaidatuko dituzte; gidoia idatziko dute eta grabatu egingo dute. Hori guztia beren kasa egingo dute, irakasleak amaiera arte ezer jakin behar ez duelako. Kontua da beraiek saiatzea lan hau laguntzarik gabe ahalik eta hobekien egiten, egoera honek horretarako testuinguru ezin hobea eskaintzen duelako. (25')
- Grabazio guztien artean bat hautatu behar dute. (5')

**Feedbacka**

- Irakasleak entzungo du egin dioten postala eta azalduko die ikasleei zer iruditu zaion: gustatu zaion, halakorik espero zuen... (15')

- ! Oharrak:**
- Ataza honetan, irakasleak erabaki behar du zentzuzkoa ote den egindako grabazio guztiak entzun eta komentatzea. Izan ere, opari bat izanik eta behin ikasleek berek hautapena eginda, ez zaie akaso atsegina gertatuko irakasleek besteren bat hobea dela esatea edota egindako lana gutxiestea akatsak dituelako...
  - Irakasleak interesa badu grabazio guztiak entzuteko, proposatu beharko die talde bakoitzak bere oparia eman diezaiola alde zuzenetik. Kasu honetan, ebaluazioa egiteko gidatu ahal da irratsaioan esatariek emandako oharrekin.

\*\* Goizean behin. Euskadi Irratia



## ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN 210'

### Helburu nagusia:

- Gabonetan ditugun kontsumo azturen inguruko tertulia ulertzea eta, esandako horretan oinarrituta, artikulua bat idaztea modu gidatuan.

### Helburuak:

- Aholku-zerrendak eratzea gizartean ikusten diren jokabideen azterketatik abiatuta.
- Gai baten inguruko kontzeptuak eta ideiak sailkatzea mapak eratzuz.
- Tertulia batean botatako ideien arteko harremanak argitzea.
- Hipotesiak egitea testuen edukiaren eta egituraren gainean.
- Testuen (ahozkoa eta idatzien) edukia eta antolaketaren gaineko aurreikuspenak egitea.
- Testu bat (ahozkoa) berreraikitzea informazioa egituratzeko emandako irizpideei jarraituz.
- Testuetatik erauzitako informazioa erabiliz azalpen laburra egitea.
- Ikaskide guztien ekarpenak erabiliz nor bere bururako aholku zerrenda bat idaztea.

### Zertan den:

- Definizioak entzunez, hitz gakoak harrapatu beharko dituzte, harremanetan jarri ahal izateko. Gainera, gaiari lotutako ideien mapa osatuko dute, tertulia batean entzundakoa kontuan hartuz. Horren ostean, Gabonak gozatzeko dekalogoia idatziko dute.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Ikaslearen liburuan hainbat kontzeptu jaso ditugu. Kontzeptu horiek geroago entzungo duten tertuliaren lehen atalean erabiliko dituzte solaskideek.
- Liburuan proposatzen zaienari ekin hasi aurretik, irakasleak eska diezaieke modu irekian esateko zer sujeritzen dien kontzeptuetako bakoitzak. (5')
- Ondoren, kontzeptuak hiruak lotuko dituzte. Horrekin batera, mapa semantiko bat izango dute eratua. Beren hautuak denon aurrean azalduko eta arrazoituko dituzte. (10')

### Ataza: Gabonak definitzeko modu ezberdinak ulertu eta bereiztu

- Tertuliaren lehen erronda entzungo dute (3. irratia pasarte \*\*\*). Kide bakoitzak aipatutako kontzeptuak identifikatu beharko dituzte. Oharrak alderatuko dituzte. Beharrezkoa bada, transkripzioa erabiliko dute zalantzak uxatzeko. (15')

### Feedbacka

- Entzun aurretik, beraiek egindako hitz hirukoteak eta tertuliakideek eratuakoak alderatu eta eztabaidatuko dituzte. (5')
- Irakasleak saioaren transkripzioan hitz gakoak ezaba ditzake (definizioak egiteko erabilitako kontzeptuak); ikasleek hutsune horiek beteko dituzte. (5')

### Atazaostea

- Taldetxotan jarrita, ikaslearen liburuan jasotzen den esaldia komentatuko dute adituek emandako definizioen ildoan. Interesik badute, egin dezatela beren jokabidearen azalpena eta horren gainean eztabaidatu tertulia irekian. (5')

### Gramatika eta diskurtsoa: definizioak

- Definizioak egiteko, solaskide guztiek ez dute estrategia berbera erabili. Solaskide bakoitzak esandakoak nahasirik eman eta ordena ditzatela. (10')
- Ondoren, bakoitzak egin dezala Gabonen bere definizioa (5')

\*\*\* *Lauretan Babel*. Euskadi Irratia

## 2

### Atazaurrea

- Ikasleei eskatuko diegu liburukian duten diagramari begiratzeko eta gogora ekar ditzatela bertan zehazten diren hiru azterbideei lotutako ideiak. (5')
- Jarraian, esaldiak sailkatzen saiatuko dira. Laukoteak egiteko eskatuko diegu. (10')

### Ataza: identifikatu mapan tertulian aipatzen / aztertzen diren ideiak

- Tertuliaren bigarren atala entzungo dute (4. irriati pasarte **\*\*\*\***). Entzun ahala, egin dezatela markatxo bat esaldien ondoan modu zehatzean edota zehar-bidez aipatu dituztela uste dutenean. Ohartarazi liburuxkan dituzten esaldiak ez daudela tertuliatik hitzez hitz erauziak eta batzuek, akaso, momentu ezberdinetan esandakoak jasotzen dituztela. (15')

### Feedbacka

- Erantzunak alderatu eta eztabaidatu; zalantzak argitzeko, transkribapenera jo dezatela. (15')

### Atazaostea

- Horri lotuta, eska dakieke ikasleei azal dezatela kontsumoari buruz entzun duten analisi horretatik zerk eman dien arreta bereziki eta, orokorrean hartuta, zein ikuspegi iruditu zaien interesgarriena. (10')

## 3

### Atazaurrea

- Ikaslearen liburuan hiru galdera jaso dira. Galdera horiek erantzuteke gelditu dira entzundako tertulian. Hasteko eskatuko diegu erabakitzeko galderetako bakoitzak gaiaren ikuspegi soziala, pertsonala ala ekonomikoa sujeritzen duen. (5')
- Taldea emandako diagrama osatuko dute, beti ere, galdera horien ildoan. (15')

### Ataza: testu labur bat idatzi, gaia aztertzeko ikuspegi jakina erabilia

- Hiru talde egingo ditugu (edota sei, bederati...). Talde bakoitzak testu bat egingo du galderetako bati erantzuteko. Horretarako erabiliko ditu diagraman jasotako oharra. (20')
- Testuen kopiak elkarri emango dizkiote. Aztertuko dute hiru testutxoek ba ote duten osagarritasunik, ea elkarren jarraian jarrita testu luzeago bat eratzeko balio ote duten... (10')
- Eska diezaiekegu hiru testuekin bakarria egiteko, jatorrizko hiru pasarteak ahalik eta gutxien aldatuta. (15')

### Feedbacka

- Testu horietan esaten dena oinarri hartuta, kontsumo gehiegikeriarik gabeko Gabon zoriontsuak pasatzeko aholku-zerrenda bat egin beharko dute. (15')

**! Oharra:** Ataza honetan ondo irudikatzen dira idazkuntzaren oinarrizko etapak: prestakuntza, behin-behineko idazkuntza eta behin betiko idazkuntza. Horren gaineko hausnarketa eginarazi diezaiekegu ikasleei.

### Atazaostea

- Tebistako programa (1. bideo pasarte **\*\*\*\*\***) batean emakume batek azaltzen dituen amarruak identifikatu eta alderatuko dituzte beraiek zerrendatutakoekin. (15')
- Nahi izanez gero, oporren bueltan aholku horiei segitu ote dieten azalduko dute.

### Gramatika eta diskurtsoa: testu idatziaren ezaugarriak

- Ataza honetan testu jarraituen zenbait ezaugarri lantzen dira inplizituki: egituratzea, koherentzia, jarraikortasuna... Horretaz guztiaz ohartarazteko, ikasleek egindako lanen inguruan ebaluazio-txostenak idatziko dizkie irakasleak, testuen balorazio bat eginez.



#### IRAK. LIB. 4. 1.

Hemendik kanpo Gabonak nola ospatzen dituzten jasotzen da ataza osagarri honetan.

\*\*\*\* *Lauretan Babel*. Euskadi Irratia

\*\*\*\*\* *Hamaika korapilo*. ETB

# ATAZA: MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN



295'

## Helburu nagusia:

- Merkealdietan ohi dugun jokabidea eta daudekeen arriskuak aztertuta, tonu umoretsuko artikulua bat eta gutun formal bat idaztea.

## Helburuak:

- Bideo-pasarte baten edukia eta antolaketaren gaineko aurreikuspenak egitea.
- Gertakarien berri ahoz ematea.
- Bideo-pasarte abiapuntu artikulua arauemaile umoretsua idaztea.
- Artikulu baten eduki eta antolaketaren gaineko aurreikuspenak egitea.
- Testu batean egindako hutsuneak betetzea hitz egokia erabiliz.
- Aholkuak idatziz formulatzeko hiztegia lantzea.
- Aholku-zerrendak eratu, jokabide baten arriskuak aintzat hartuta.
- Artikuluan oinarrituta, gutun arauemaile formala idaztea.

## Zertan den:

- Merkealdietan ohi dugun jokabidea azaldu eta gero, ondo erosteko aholku zerrenda batean ezabatutako hitzak berreskuratu beharko dituzte, baita merkealdien arriskuei aurre egiteko neurriak zerrendatu ere. Azkenik, gaiaren inguruko testu bat idatziko dute ikaskide guztien artean.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Ikasleei galdetu merkealdietan erosteko ohiturarik ote duten; zenbat gastatzen duten, gustuko dituzten... (5')
- Ikaslearen liburuan dauden esaldiak banaka irakurri eta taula bete. (5')
- Taldeka jarrita, ikaskideei azaldu norberaren jokabidea zertan den emandako esaldien harian eta eztabaida dezatela zein diren jokabide zuzenak eta zein arriskutsuenak. (10')

### Ataza: pasadizo baten berri eman ahoz eta idatziz

- Talde osoaren aurrean ikasleek azal dituzten ilaretan izan dituzten esperientziak arazoak, anekdotak. (5')
- Talde txikitik osatu dezatela ikaslearen liburuan duten taula. Jendeak ilaretan aurrea hartzeko erabili ohi dituen trikimailuak eta zein den beren jokabidea horien aurrean. (5')
- Ikasleen erdiek **2. bideo-pasarte** \*\*\*\*\* ikusiko dute eta beste erdiek **3. bideo pasarte** \*\*\*\*\*. Ikusi ahala, emandako hitz-zerrendan pasartea kontatzeko bereziki baliagarriak izan dakizkiekeenak azpimarratuko dituzte. (10')
- Ikasleek elkarri kontatu diezaiotela ikusitakoa eta saia daitezela hitz-zerrenda erabiltzen beren kontakizunean. (10')

### Feedbacka

- Bi pasadizoak ikusiko dituzte berriro, eta bikoteetan elkarri komentatuko diote entzundakoaren arabera pasadizoa horrelaxe imajinatu duten edo ez. Irakasleak ohartaraziko ditu ikasleak gertakarien kontakizunean hiztegia prestatu eta zaintzeak duen garrantziaz. (5')

2

### Ataza: gaiari buruzko testu umoretsua idatzi

- Taldetxotan jarrita eztabaidatuko dituzte ikaslearen liburuan proposatzen den artikulua idazteko proiektua. (10')
- Horien berri emango diote taldeari eta irakasleak ekarpenak arbelean jasoko ditu. (5')
- Bakoitzak bere artikulua idatziko du. (20')

\*\*\*\*\* *Mr. Bean*. ETB

\*\*\*\*\* *Tricycle*. *Dinamita*. ETB

### Feedbacka

- Testuak trukatuko dituzte eta elkarri orraztu egingo dizkiote. (15')
- Ikasgelako hormetan eskegiko dituzte eta hoberena hautatu. (20')

### Gramatika eta diskurtsoa

- Interesgarria izan liteke, osagarri gisa, anekdotetan oinarritutako zutabeak, azalpenak... lantzea: aditzak ezabatu (hiztegia); aditz laguntzaileak ezabatu (denbora eta aspektua); esaldi guztietan aditz laguntzailea jarrita eman eta erabaki dezatela elipsia noiz egin...

## 3

### Atazaurrea

- Testuaren lehen pasartea \*\*\*\*\* irakurri eta eztabaidatu zein ote diren falta diren lau adjektiboak. Alderatu proposamenak; denon artean bakarrera jo. Eman erantzuna eta aztertu aukerako sinonimoak zein diren. (10')

### ZUZENKETA-ORRIA

ondo  
argi  
konpultsibo  
irrazional

- Ikaslearen liburuan emandako hiru galderari erantzun. Taldetxoetan bildu aukerako erantzun batzuk. (5')
- Arbelean erantzun guztiak bildu; kontraesanak, desadostasunak... eztabaidatu. (5')

### Ataza: artikulua bat irakurri eta hutsuneak bete

- Lauko taldetxotan ikasleen liburuko hiztegi-zerrenda aztertuko dute eta argituko dituzte bertan jasotzen diren aditzen arteko ezberdintasunak. Animatuko ditugu hiztegi-liburua erabiltzera: ahal dela euskara-euskara hiztegi bat. (15')
- Binaka testua osatuko dute, zerrendako hitzak erabiliz. (15')

### Feedbacka

- Jatorrizko testuarekin alderatuko dituzte beren proposamenak eta zalantzak, ezadostasunak... alboko bikotearekin eztabaidatuko. (5')

## ERANTZUN-ORRIA

Ondo pentsatu “urtarrileko aldapako” beherapenetan “erori” aurretik.

Iritsi dira urtarrileko beherapenak. Hemen ditugu aurten ere pagotxa eta beherapenen zurrunbiloa, kontsumitzaileak prezio oneko salgaien bila jartzen dituena, benetan behar dituen pentsatu ere egin gabe askotan. Urtarrileko aldapa deitzen dugun horretan gure patrikak kalte handiagorik izan ez dezan, garrantzitsua da **ondo** informatu, ideiak **argi** eduki eta erosketa **konpultsibo** eta **irrazionalean** ez erortzea.

Egizu benetan behar dituzun gauzen zerrenda. **Kontuan izan** etxeko beharrak (tresneria, tresna elektrikoak...), zeureak eta familiarenak (arropa, oinetakoak, osagarriak...). Behar baino gehiago gastatzea eta laster erabiliko ez dituzun gauzak erostea **ekidingo** duzu.

**Gogoan izan** beherapenek ezin dutela hamabost egun baino gutxiago edo bi hilabete baino gehiago **iraun** eta produktuaren prezio normalean %20ko beherapena izan behar dela gutxienez.

**Kontuz** presarekin. Beherapenetako lehen egunetako estuasun eta bultzakadek inpultso bidez erostera eraman gaitzakete.

**Zehaztu** zenbat gastatuko duzun gehienez eta saiatu aurrekontua ez gainditzen; bestela, **antzemango** duzu poltsikoan.

Ez **nahastu** beherapenak eta merkealdiak. Denda batek salgai kaltetuak, zaharrak edo erreusak **eskaintzen** baditu, merkealdia eskaintzen ari da eta ez beherapenak.

Denda batean “beherapenak” **iragartzen** dituen kartela badago, salmenten erdiak izan behar du, gutxienez, beherapena.

Beherapenetan **eskaintzen** diren produktuek gutxienez hilabetez egon behar dute dendan. Ez **fidatu** beherapen garaian erakusleihatoko gaiak aldatzen dituzten dendekin.

**Begiratu** beheratutako prezioarekin batera aurrekoa ere agertzen den. Beherapenarekin eskaintzen den produktu bakoitzari aurreko prezioa ere jartzera behartuta daude dendak.

Beherapenetan kalitate berbera prezio apalagoan eskaini behar da. **Bazter** itzazu behar diren osasun baldintzak **betetzen** ez dituzten produktuak, egoera txarrean daudenak edo segurtasun neurriak betetzen ez dituztenak.

**Egiaztatu** etiketa zuzena dela eta gaztelaniaz (edo estatuko beste hizkuntza ofizialen batean) irakur daitekeela. Jantzien etiketak garbitze eta lixatzeko jarraibideak izan behar ditu eta ehunaren materialen eta enpresa fabrikatzailearen berri eman behar du (manufaktura zein herrialdetan egin den barne dela).

Etxeko tresna elektriko bat erosten baduzu, **eska** ezazu tresna horrek prezio normalean duen garantiako epe berbera izatea. **Egiaztatu** dokumentazio guztia zigilatua eta arauen barruan dagoela.

Ordaindu aurretik, **galdetu** salgaia itzultzerik onartzen duten. Saltzaileak **behartuta daude** urteko edozein garaitan salgai akastunak aldatzera, baina egoera onean daudenekin ez da derrigorrezkoa.

**Galdetu** kreditu txartelarekin ordaintzerik dagoen. Urte guztian zehar txartela onartzen duten dendak behartuta daude beherapenetan ere **onartzera**, prezioari ezer erantsi gabe gainera.

**Eska** ezazu ordainagiria edo erosketa-txartela; ezinbesteko dira salgaia aldatu edo itzultzeko.

Beherapenetan ere, beste edozein unetako eskubide berberak ditugu kontsumitzaileok. Dendaren batek kontsumitzaile gisa dituzun eskubideak ez dituela errespetatu uste baduzu, eska ezazu erreklamazio-orria eta saia zaitetz arazoa onean konpontzen. Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegora, autonomia erkidegoko Kontsumo Zerbitzura nahiz edozein kontsumitzaile elkartetara ere **jo** dezakezu.

### Gramatika: aditz lokuzioak eta aditzen polisemia

- Ataza honek aukera ona eskaintzen digu aditzek dituzten eskakizun morfo-sintaktikoak eta esanahi anitzak lantzeko. Horretarako, emango dizkiegu ateratako aditzak eta eskatuko diegu zerrendatzeko ezagutzen dituzten lokuzio ezberdinak. (15')

Adibidez:

**NAHASTU:** Tokiz nahastu, zurekin nahastu, ardoari ura nahastu...

**BETE:** baldintzak bete, zerbaitekin bete, bere azalpenak ez nau bete, urez bete...

**FIDATU:** Zurekin fidatzen naiz / zutaz fidatzen naiz

## 4

### Atazaurrea

- Lauko taldetxotan, ikaslearen liburuan duten taula osatuko dute. Bertan jasoko dituzte testuak aipatzen dituen arriskuak eta horiei aurre egiteko proposatzen dituen neurriak. (10')
- Zerrenda ordenatzeko irizpideren bat erabakiko dute. (5')

### Ataza: irakurritako artikuluan oinarrituta gutun bat idatzi

- Ikasleek eztabaidatuko dute artikuluan emandako aholkuen artean zein jasoko lituzketen Eroskiren izenean joango litzatekeen gutunean. (10')
- Binaka jarrita egin dezatela gutuna, erabakitako irizpideei jarraiki. (25')
- Launaka jarriko dira eta prestatu dituzten bi gutunak alderatu egingo dituzte. Bietatik bat hautatuko dute edota biekin gutun bakarra eratuko dute taldeari aurkezteko. (15')

### Feedbacka

- Ikasleak Eroskiko marketing-taldeko teknikariak dira. Talde bakoitzak gutun-eredu bat ekarri du bilerara; bere proposamena aurkeztuko du eta horren defentsa egingo. (15')
- Bileran gutun bakarra hautatuko da edota gutun bateratu bat egiteko proposamen bat onartuko da. (5')

### Gramatika eta diskurtsoa: aholkuak emateko hiztegia

- Ataza honetan aholkuak, sujerentziak, instrukzioak... emateko aditzak landu ditugu. Ikasleei egindako gutunak itzuliko dizkiegu aditz batzuk ezabatuta. Jar dezatela falta den aditza. (15')



#### IRAK. LIB. 4. 2.

Merkealdietan ere arau batzuk bete behar dituzte saltzaileek. Komeni da, hortaz, erosleek horren berri izatea.

## ATAZA: KONTSUMO-ADIKZIOA 180'

### Helburu nagusia:

- Kontsumo-adikzioaren gaia jorratu ondoren, esatari batek aditu bati egindako entrebista simulatzea.

### Helburuak:

- Taldean, kontzeptuak eta ideiak sailkatzea mapak eratu.
- Hipotesiak egitea testuen edukiaren eta egituraren gainean.
- Testuetatik erazitako informazioa erabiliz, elkarrizketa bat egitea gaiaren inguruko balizko aditu bati.
- Aholku-zerrendak eratzea arazo bati aurre egiteko, egon daitezkeen oztopoak aintzat hartuta.
- Zerrenda bateko aholkuen idazketa osatzea, emandako esaldi-zatiari jarraipena emanaz.

### Zertan den:

- Kontsumo-adikzioaren ezaugarriak bereizi eta sailkatu ondoren, adikzioaren arazoak ezberdinak jasotzen dituzten testuak irakurri behar dira, arazo honen ondorioak aurkitzeko.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Ikasleei eskatuko diegu kontsumo-adikzioa beren hitzetan definitzeko: noiz esango luketen pertsona bat kontsumo-adiktoa dela; horren adibiderik eman ote dezaketen... (5')

### Ataza: kontsumo-adikzioaren bilakaeraren inguruko testu-pasarteak ulertu

- Liburuan kontsumo-adikzioaren zenbait ezaugarri dituzte zerrendatuta; sailka ditzatela jakinda gaixotasun honen hiru etapen adierazletzat jotzen dituztela adituek. (10')

## ZUZENKETA-ORRIA

**EROSKETADIKTOA** Kontsumozale dei genezakeenak erosi, gauza berriak eskuratzeko premia larria du, gehien beharrik ez badu ere. Produktu erosi berriak, bestalde, lortu orduko galtzen du zuen erakargarritasuna. Horrela, bada, kontsumoaren menpe bizi dena, erosi eta erosi baina inoiz gogobete gabe, ezin da sorgin gurpil zoro horretatik irten.

**KONTSUMOADIKTOA** Zaletasun hau duten pertsonak behin eta berriro sentitzen dute erosketak egitera joan beharra. Azkenean, bizitzaren ardatz nagusi dute hori eta beren aisialdiko jardun ia bakarra bihurtzen da, beste edozein egiteko baztertuta. Hala ere, inoiz gutxitan erosten dute ezer. Erakusleihoei begira jarri eta dendetan barrena ibili besterik ez dute buruan; izan ere, maiz ingurukoak bultzatu nahi izaten dituzte dena delakoa erostera, beraiek erosi gabe.

**KREDITUADIKTOA** Aurreko bi mendetasunen ondorioz, pertsonak etengabe gastatu beharra du, bere gastu-ahalmena luze gaingaituta ere, eta horrek kredituen menpe bizitzera eramaten du, gero eta kreditu handiago eta epe luzeragokoen menpe bizitzera, hain zuzen. Egoera horretara iritsita, guztiz ezinezkoa egiten da dirua kontrolatzea edota gastua neurtzea. Kredituzale petoak txartela gastu erreala ezkutatzeko erabiltzen du eta azkenean ekonomikoki itota aurkitzen du bere burua.

- Jatorrizko testuaren hiru pasarteak irakurriko dituzte jarraian. Lot ditzatela pasarteak eta emandako hiru izenburuak. (5')

### Feedbacka

- Talde txikitan aldera ditzatela irakurri aurretik egindako ezaugarrien zerrendak eta testuen azalpenak. Azter dezatela nolako aldeak dauden. Kasua bada, zergatik ez ote duten hasieratik asmatu. (5')

### Atazaostea

- Eztabaida dezatela zehaztutako hiru faseak zein hurrenkeratan ematen diren; hautua justifika dezatela. (5')

**!Oharra:** Estrategiak lantzeko proposamen osagarriak: aurreikuspenak egitea

Ataza honetan ikaslea bultzatu dugu aurreikuspenak egitera testuen izenburu eta esaldi jakinen gainean; inferentziak ere egitera bultzatu ditugu. Une egokia izan liteke estrategia horien garrantziaz eta dituzketen arazoez hitz egiteko. Estrategia hau lantzeko beste testuren batez balia gaitzake: atalen izenburuak eman eta igarri dezatela zein ote den edukia; esaldi-gako batzuk eman eta asma dezatela zein ote den testuaren gaia; irudiak eta grafikoak ikusita, asmatu zein ote den edukia...

## 2

### Atazaurrea

- Ikasleen liburuan aditu bati gaiaren inguruan egindako entrebista batean egindako bi galdera jasotzen dira. Galdera horieker erantzungo ote dien igartzen saiatuko dira taldetxotan. (5')
- Adituaren erantzunak irakurriko dituzte eta talde osoari azalduko diote nolako aldeak aurkitu dituzten adituak eta beraiek emandako erantzunen artean. (5')

### Ataza: kontsumo-adikzioaren eragileen inguruko testu-pasarteak ulertu

- Kontsumo-adikzioaren iturburuetakoz batzuk zehazten dituzten hiru testu-pasarte \*\*\*\*\* irakurriko dituzte. Ikasleek proposatu behar dituzte hutsuneak betetzeko aukerak. (10')

### Feedbacka

- Jatorrizkoekin alderatuko dituzte eta erabakiko dute beraiek proposatutakoek ere balio ote zezaketen. (5')

## ZUZENKETA-ORRIA

**Kontentagaiztasuna,** frustrazioa edota arazo psikologikoak izan daitezke etengabe kontsumitu behar horren atzean ezkututzen direnak; kontsumoa horiek sortutako hutsunea betetzera dator. Zenbait psikologoren arabera, umetan, Olentzerotan-eta, opariak jasotzen zireneko ilusio hura berreskuratzeko ahalegina dago atzean.

**Publizitatea.** Propagandak gure ahalbideen gainetik bizitzera bultza gaitzake, zorientsu izateko eskuratu behar ditugun produktu berriak erakutsiz. Gainera, salmenta-azalera handiek direnak eta ez direnak erabiltzen dituzte bezeroak aurrez pentsatutakoa baino gehiago xahutzera limurtzeko, hala nola, gurditxoek tamaina handia, eskaintza bereziak, salgaien kokalekua apaletan, oparia duten gaiak...

**Gizarte-arrakastaren isla.** Ingurukoaren aurrean gure izen ona, itzala erakutsiko duten ikurren faltan, gizarte honetan gero eta hedatuago dago pertsonak benetan bereizten dituen beren ondasunak direlako ideia. Horrela, erositako produktuak geure burua nabarmentzeko bide bakarra bihurtu dira. Kontsumo-zaletasunaren menpeko gehienak erdi mailakoak izaten dira J. Garces-en arabera (Kontsumoan espezializatutako psikologoa eta Aragoiko Kontsumitzaileen Elkarteko kidea): "Goi mailako pertsonak ez dute kontsumoa behar beren estatusa indartzeko: dirua xahutzen badute, badutelako da, ez beste edozergatik. Behe mailakoek, berriz, aurrekontu murriztarekin moldatu behar izaten dute, eta zorrozki moldatu ere".

### Atazaostea

- Eztabaida dezatela hiru pasarte horiek zein ordenatan zeuden hurrenkeratuak jatorrizko testuan. Alderatu ditzatela beren hipotesiak jatorrizko testuaren hautuarekin. (5')

\*\*\*\*\* Elena Siegrist *QUO aldizkaria* (moldatua)



## 3

**Atazaurrea**

- Ikasleek kontsumo-adikzioak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak zerrendatuko dituzte. Liburuan duten taulan jasoko dituzte beren proposamenak. (5')
- Kontsumo-adikzioaren inguruko hirugarren testu-atala irakurriko dute eta zehazten diren ondorioak bertan azpimarratuko dituzte. Aurreko zerrendara eramango dituzte. (5')

**Ataza: kontsumo-adikzioari aurre egiteko aholkuak idatzi**

- Ikasleei eskatuko diegu zerrendatutako ondorio kaltegarriei aurre egiteko neurriak proposa ditzatela eta aurreikus ditzatela, halaber, izan daitezkeen oztopoak ere. (10')
- Jatorrizko testuak hamar aholku ematen ditu arazo honi aurre egiteko. Aholku bakoitza pasarte labur batean azaltzen da. Ikasleek hamar pasartean hasierak dituzte. Taldeari eskatuko zaio hipotesiak egiteko falta denari buruz. Lan hau ahoz egingo dute irakaslearen gidaritzapean. (5')
- Ondoren, pasartean amaiera idazteko eskatuko diegu. Lana ikasleen artean banatuz gero, elkarri aurkeztu beharko diote idatzitakoa. (15')

**Feedbacka**

- Jatorrizko testua \*\*\*\*\* irakurriko dute eta beraiek proposatutakoarekin alderatuko dute. (10')

**ERANTZUN-ORRIA****NOLA EUTSI KONTSUMOARI KONTROLPEAN**

1. Erosketak egitera irten aurretik, onena da behar diren gauzen zerrenda eta gutxi gorabeherako aurrekontua egitea
2. Elikagaiak ez dira urdaila hutsik dugula erosi behar. Bestela, erraza da behar baino gehiago erosteko tentaldian erortzea.
3. Azalera handiren batean, erostea aurreikusten ez zen zerbaitek gure arreta erakartzen badu, hobe berehala erosi gabe hurrengorako uzten saiatzea. Beste biderik ez dago erosketa horrek benetan merezi duela ziurtatzeko.
4. Noizean behingo gutziak ez dira kaltegarriak, baina hobe kasu horietarako ere aurrekontua zehaztu eta inoiz gainditzen ez badugu
5. Askotan ezertarako behar ez ditugun gauzak eskaintza bereziak direlako erosten ditugu. Argi eduki behar dugu benetako mauka izateko bi baldintza bete behar direla: benetan behar izatea eta ohi baino merkeago saltzea.
6. Kutxatik pasa aurretik, alderatu xahututako dirua aurreikusitakoarekin eta gehiago bada, itzuli apaletara hain beharrezkoak ez diren produktuak.
7. Ez inola lotsatu dendaren batetik ezer erosi gabe ateratzeagatik.
8. Umeak erraz erortzen dira publizitatearen eraginpean. Seme/alabak zerbait atxikia daraman opariagatik erosteko eskatuz gero, eutsi gogor eta saiatu ulertarazten manipulazio bide bat besterik ez dela hori.
9. Zenbait adituk hauxe gomendatzen diete beren gaixoei kredituaren menpekotasuna gainditzeko, alegia, txartela puskatzeko edo bestela, asko gastatu zuteneko azken erosketarekin batera eman zieten tiketarekin bil dezatela. Beste saihasbide bat honakoa omen da: txartelarekin ordaintzera goazenean geure dirua poltsikotik atera eta dendariaren eskuetara iristen irudikatzea.
10. Gastuari eusteko arazoaren aurrean beste irtenbide bat dirua bikotekidearekin erdibanatzea da. Horrela, zailagoa izango da famili gatazka gertatzea behintzat.

**Atazaostea**

- Taldean eztabaidatuko dute aholku horien eraginkortasunaz: segitzeko egon daitezkeen zailtasunez, arazoari erro-errotik heltzen dioten... (5')

\*\*\*\*\* Elena Siegrist *QUO aldizkaria* 86. zenb. (moldatua)

4

### Atazaurrea

- Unitatearen atal honetan hainbat jarduera iradoki ditugu irakurketa-estrategia batzuk lantzeko entrebisten bitartez. Ikasleei eskatuko diegu azaltzeko nola uste duten prestatzen eta egiten dituztela kazetariak entrebistak; zertan ikusten den hori... (5')

### Ataza: kontsumo-adikzioari buruzko entrebista bat simulatu

- Ikasleek liburuan dituzten instrukzioei jarraiki entrebistak modu autonomoan prestatu eta grabatuko dituzte. (30')

### Feedbacka

- Entrebistak (edo hautatutako batzuk) entzun eta liburuan duten galdeketaz gidatuta egin dezatela lanen balorazioa. (30')

# ATAZA: HAINBESTE BEHAR OTE DUGU?



## Helburu nagusia:

- Esku-orri bat egitea lehen munduan ditugun kontsumo-azturen bidegabekeriaz jendea sentsibilizatzeko.

## Helburuak:

- Aholku-zerrendak eratzea, iragarki batean iradoki den ikuspegitik abiatuta.
- Taldean, kontzeptuak eta ideiak sailkatzea mapak eginez.
- Taldekideek egindako testuen artean hautatzea xede komunikatibo hobekien erdiesten duena.
- Telebistako iragarkiaren edukiaren eta antolaketaren gaineko aurreikuspenak egitea.
- Aholku-sorta bat eskaintzea bizimodu bidezkoagoa aldarrikatzen duen esku-orrian.

## Zertan den:

- Ikasleek produktu batzuk zerrendatuko dituzte: etxea hornitzeko, helduak eta umeak hezteko, osasuna zaintzeko... kontsumitu ohi direnak. Ildo horretan, kontsumo azturen gainean jardungo dute eta bizimodu eroangarriagoa izateko proposamenak egingo dituzte. Horri lotuak daude zenbait pentsalariren esaldiak, ikasleek komentatzeko izango dituztenak.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea

- Ikasleek taldetxotan jarrita zerrendatuko dituzte hainbat esparruri atxikitako kontsumo-produktuak. Horien artean bereiztuko dituzte ezinbestekotzat jotzen dituztenak eta aukerakoak lirakeenak. (5')

### Ataza: iragarki baten gaia eta leloa aurreikusi

- Ikasleek GKEen koordinakundeak kanpaina batean egindako iragarkia ahotsik gabe ikusiko dute (4. bideo pasartea \*\*\*\*\*). Eztabaidatu behar dute zein ote den iragarkiak jorratzen duen gaia eta zein ote kanpainaren leloa. (10')
- Gero, iragarkia ahotsa eta guzti ikusiko dute (5. bideo pasartea \*\*\*\*\*). Kanpainaren leloa jasoko dute eta alderatuko dute egindako proposamenekin. Ikusiko dute zein hurbiltzen zen gehien. (5')

### Feedbacka

- Eztabaidatuko dute taldean hasieran egindako aurreikuspenetatik zein hurbildu ote den gehien jatorrizkora. (5')

### Atazaostea

- Txandaka, iragarkiak eragindako hausnarketak eta sentsazioak azal ditzatela talde osoaren aurrean. (5')
- Azkenik, eskatuko diegu iritzi bat honelako kanpainaren eraginkortasunaren inguruan. (5')

2

### Atazaurrea

- Taldetxotan jarrita, proposamen zerrenda bat egingo dute, gure kontsumo-azturak bidezkoagoak egitea helburu izango duena. (10')
- Talde osoari aurkeztuko dizkiete proposamenak eta bakoitzaren bideragarritasunaz eztabaidatuko dute. (10')

### Ataza: esku-orri bat idazti iragarkian oinarrituta

- Talde bakoitzak behin-betiko proposamenen zerrenda adostuko du. (5')
- Behin proposamenak erabakita, aldarrikapen-orria idatziko dute taldean. Horretarako, formatuaz, edukiaz, luzeraz... eztabaidatuko dute eta egitasmoa taldeari aurkeztuko diote. (10')

\*\*\*\*\* GKE iragarkia. ETB

\*\*\*\*\* GKE iragarkia. ETB

- Besteen iritziak entzunda, testu idazteari ekingo diote. (20')

### Feedbacka

- Testuak taldeari aurkeztu eta denen artean bat hautatuko dute. (20')

### Gramatika eta diskurtsoa

- Ataza honetan aholkuak eta proposamenak formulatzeko molde ezberdinak erabiliko dituzte ikasleek: batzuek azalpen ugariz hornituko dituzte; beste batzuek aldarrikapen tonua emango diete... Horiek aztertuta, ikusi ahal izango dugu bakoitzak zein baliabide erabili dituen eta egoki moldatu ote den zeregin horretan. Bildu ikasleetako bakoitzarekin eta komentatu alderdi hauek.

# 1. BIDEO-PASARTEAK

## ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN



### 1. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 6'13"

Etxekoandreaken adierazpenak

- AURKEZLEA** Miren ez omen da oso trebea merkealdietan-eta erosketa izugarriak egiten baina, aldiz, oso ondo omen daki, ba, Gabonetan-eta behar den bezala erosten eta gehiegi ez gastatzen, e? murrizten pixka bat. Arratsalde on Miren.
- MIREN** Arratsalde on!
- AURKEZLEA** Zein estrategiaz baliatzen zara zu, orduan, Gabonetan-eta behar dena baino gehiago ez gastatzeko? Konta iezaguzu.
- MIREN** Bueno, izan dut jatetxea, eta orduan, ba, neuri asko gustatzen zait janaria preparatzen eta... ez dakit horren zera daukadan edo, ba, ahaleginak egiten... zer esango dizut, Gabonak direla-eta ez horrela... urrutira joan gabe, ba, beti egoten dira gauzak... bere prezioan egoten diren gauza horiek. Porque batzuk esaten dute, bai... ez dakit, kongelatu edo bisiguak eta. Eta ni ez naiz kongelatu eta horrela preparatzeko zalea, baizik... zer esango dizut nik, hainbeste gauza daude: bakailao eder bat, hemen bertan egiten den bakailaoa hainbeste modutan. Arrai-zopa goxoak, hainbeste arrai eder daukagu bertan ere. Niri askotan pena eman izan dit arrandegira joan eta... nola esaten da, igual mediana edo legatza eder bat hartu, eta niri begiak kendu iezazkidazu, buru hori kendu iezaziozu, azala dena kendu iezaziozu, erdiko... kendu iezaziozu. Eta nik esaten dut: ene, hainbeste kendu, kendu, pena handia ematen dit, ba, zein arrai-zopa ederra atera leiken beste gauza pixka batekin: sapatxo batekin edo. Eta horrek, ba...
- AURKEZLEA** Beraz, zu Miren ez duzu pentsatzen hainbeste bezalaxe: bueno, sikiera urtean behin da eta, urtean behin.
- MIREN** Bai, urtean behin, baina gauza ona preparatu leizkela pentsatzen dut, bertan egoten diren aldatu gabe, porque ez da prezio joan arrandegira... nik ez dakit, prezio handiko gauzak hartzera, eta haragia eta, ez dakit nik, aldaketa horiek egin gabe. Nik neuk hala pentsatzen dut, eta hala egiten dut. Gero ere familia handia gara eta.
- AURKEZLEA** Bai, baina badakizu, hori esaten nizun, bada, hainbestek eta hainbestek Gabonetan hori egiten dutela, beno, urtean behin da eta hau erosiko dut.
- MIREN** Eta umeak azken finean ere, ba, kroketatxo goxo batzuk eta beti amamak egindakoak bexamel goxo bat egiten duzu eta zeuk aurretik pixka bat joaten baldin bazara, gaur dauzkagun frigorifiko ederrekin eta, gordetzeko eta... nik ez dut uste horrenbestearainoko... Nik inportantzia gehiago ematen diot, igual, ba, bueno, mahaiak eta gauzak ondo jarri eta gustagarri eta etxea, eta goxamen bat eman Gabonetako giro bat eman. Janaria ere bai, janaria ere bai, baina ez behintzat urrutira eta asko botatzera ahal dudala, e?
- AURKEZLEA** Eta Miren, zure ustetan, Gabon osteko merkealdi horietako itxaron behar da? Komenigarria al da itxoitea eta gero merkealdi horietara joatea?
- MIREN** Nik ezagutzen dut jendea oso abila dena. Joan eta oso konpra... Ni neu ez naiz, ni neu ikusten naiz, behar dudanean prenda bat, ondo pentsatuta halako traje bat, halako abrigu bat, edo ezagutzen dudan denda batera nahiago dut joan, hark esan duen bezala, edo bestela esaten zuen bezala, sobrea, bakoitzak bidaltzen dienean sobretxo hori, zuek esan duzuen, Gabonen ondoren, edo, ezta?
- AURKEZLEA** Orduantxe aprobetxatu.
- MIREN** Emakumeak nahi baldin badu berarentzako zerbait eta errektxo badazkigu egiten, eta hantxe, heldu hari eta bueno, haren sobrea erre zaion eta orduan, bueno, dendari hark bidali dit nirekin konfidantzarekin, porque, ez dakit, niri gertatu izan zait joan denda batera eta erosi eta, ba, blusa, eta erosi eta talla gustatu eta talla hori ez dago. Orduan, ba, bueno, pixka bat histutxoago. Eta, ba, bi kilo kenduko ditut, eta gero bi kilo horiek ez dira joaten eta blusa bat hantxe pertxan zintzilik.
- AURKEZLEA** Miren, eta txoilorik egin al duzu merkealdietan, eta?
- MIREN** Noiz edo noiz, nik ez dakit txoiloren bat edo igual zapata edo halako, nola izaten da... baina esaten dizut, ni neu ez naiz. Baina ikusten dut jende abila badagoela. Nik neuk nahiago dut behar dudanean gauza bat erosi.
- AURKEZLEA** Baina poza ematen du, e? dendan ikusi... zapata pareta ikusi garesti eta handik 15 egunetara prezio erdian, eta ze poza, Miren?
- MIREN** Bai, horrek izugarriko pena ematen dit. Gara denok etxean, ba, bueno, hasi urte berrietatik eta errege

bitartean lau edo bost gara denok, zera egiten ditugunak, urtebetetzeak. Eta orduan erregaloak egiten ditut, ba, bueno, bakoitzari bere egunean. Eta gero zazpi edo zortzi etorri eta: Ay! prenda hau bera erdi prezioan ikustea. Horrek benetan ematen dit pena. Igual izango da taila, ba, bat gelditu delako, edo jakingo du dendariak, ezta? baina horrek benetako pena ematen du.

**AURKEZLEA** Miren, urteko lehen hilabetetan egunero patatak jatea tokatzen al da?

**MIREN** Nola?

**AURKEZLEA** Urteko lehen hilabetetan egunero patatak jatea tokatzen al da?

**MIREN** Zergatik? Egin direlako gastu handi hauek denak?

**AURKEZLEA** Bai. Zure etxean ez, e? Zure etxean argi geratu da...

**MIREN** Bueno, nik uste dut haserre asko ere etorriko direla.

**AURKEZLEA** Bai, ezta?

**MIREN** Niri iruditzen zait porque kontsumitzen da jendea... nik ikusten dut igual egun horiek direla eta, ez dakit bada nik, denak zoro eta zoro eta zoro. Hark gero bukaera azkenengoa... azkenengo egunak... eta gero hainbeste jostailu eta behar ez den gauza pila bat nik uste dut erosten dugula jendeak gaur egunean. Lehendik, lehen hor... ez dakit ba nik, bai, bai, beste... zeharo desberdina, ez dago konparatzerik. Baina oraingoa gehiegi iruditzen zait niri ere.

**AURKEZLEA** Aizu, eta lehen, garai batean —zu gaztea zara oraindik, baina esan nahi dut— beherapenak eta noiztik gogoratzen dituzu zuk, merkealdiak eta?

**MIREN** Ba, esango dizut, begiratu. Guk *corte y confección* ibili ginen hemen, Donostiara etortzen ginen Zumaiatik neska koadrila bat. Eta zenbat urte izango nituen nik orduan, ba, 18-19ren bat urte, eta akordatzen naiz aurreneko errebak izaten zirela Almacenes Lasagabaster, e? Ze kolak, ze kolak... retaltxo bat hartzeko ia borrokan ibiltzen ginen. Kolak elkarrekin hiru lagun txandak egin ezinik... aditzen direnak akordatuko dira, bata baino gehiago.

## ATAZA: MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN



### 2. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 1'40"

Mr. Bean

Hitzik gabeko bideo pasartea



### 3. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 0'47"

Aprobetxategia

**LANGILEA** Tori.

**BEZERO 1** Bat falta da.

**LANGILEA** Barkatu, erori egin da. Tori, egutegi bat zuretzat

**BEZERO 1** Egutegia?

**BEZERO 2** Gora eskuak, atzera, bizkor, mugitzen denari burmuinak hegan aterako zaizkio. Gorago eskuak! Sartu 25.000 hauek hemen. Agudo!

**LANGILEA** Bai, bai.

**BEZERO 2** Gorago!

**LANGILEA** Tori, listo.

**BEZERO 2** Mila esker. Eskerrik asko, agur.

### ATAZA: HAINBESTE BEHAR OTE DUGU?



#### 4. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 0'40"

Hitzik gabe



#### 5. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 0'40"

Jakin dugunez, arma karga bat aurkitu dute Euskadiko ONGren egoitz batetan. Armak era guztietakoak planetako herri behartsuenetara bidaltzeko ziren. Goseari aurre egiteko armak, gaixotasunak gaingintzeko armak, kultura eza eta teknologiaren azpigarapena azpimarratzeko armak. ONGren arduradunek aditzera eman dutenez arma mota hauen igorpena munduko herri guztien bakea, elkartasuna eta berdintasuna garatzen duten bakarrak dira: bakearen aldeko armak.



## ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN

## 1. GABONAK MUNDUAN



## 6. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 3'13"

Halloween

Hitzik gabe



## 7. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 3'13"

Halloween

NESKA

Xabier eta Klaudio, bihar gau berezi bat da, zer gau da? Zer ospatzen dugu bihar gauean?

XABIER

Bihar Santu guztien bezpera ez ezik, Halloween gauea.

NESKA

Bai jauna, bai jauna! Argi; bost pustarri, eta hori dena Halloween gauea da ospatu behar duguna, eta bueno, Estatu Batuetan...

XABIER

Hemen inork ospatzen al du?

NESKA

Bai, gero hitz eginen dugu horretaz, ikusiko duzu hagitz sustraitzen ari dela hemen Euskal Herrian baita Halloween gauea delako hori ere. Bueno, ba, hildakoen eta izpirituen gauea den hori, biharko gauean ospatzen da Estatu Batuetan eta oraintxe irudi batzuk ikusiko ditugu eta ikusiko duzue zertaz dihoan. Kontua da Estatu Batuetan ospatzen baldin bada ere Irlandatik datorren gai bat dela, ohitura bat dela, berez, aspaldidanik Irlandan...

XABIER

Beraz, europarra da!

NESKA

Eta Estatu Batuetan oso sustraitua dago, mozorrotu egiten dira, sekulako dirutza uzten dute gainera mozorroetan, iaz bilioi bat —Bkin— dolar gastatu zituzten mozorroetan, ez da broma, eta haurrak gozoki eske ibiltzen dira eta horrelako kontuetan ibiltzen dira. San Juan sua egiten dugu hemen, ba, beraiek ere sua pizten dute, nonbait izpiritu txarrak eta erretzeko eta izpiritu onak babesteko, eta, esan bezala, Euskal Herrian sustraitzen ari den kontu bat da. Eta goazen ikustera zergatik esaten dizuedan hori. Bueno, oso tipikoak dira mozorroak, baina Halloween-en tipikoena orain erakutsi behar dizuedana da: eta ez dut deus ere kenduko erakusteko.

(Ooooh!)

Hemen ikusten duguna da... Josu, politena hartu zuk kalabaza. Bale? Kalabazak oso tipikoak dira. Horregatik kalabaza kolorea ekarri dut. Ulertzen? Dena neurtzen da, baina kalabazaz gain Euskal Herriko dendetan aurkitzen dituzu beste kontu batzuk, erakutsiko dizkizuet. Kasu honetan guk Angelita dendatik ekarri ditugu, eta frogara horrekin esaten dizut, Euskal Herrian, bueno, ba, asko egiten ari den festa dela. Goazen trasteak ateratzen hastera. Adibide praktikoak, por ejemplo, hau jantziaz.

(Oooooh!) Zer gehiago. Zuei ere ekarri dizuet, e? pottokok!

KLAUDIO

Aber zer?

XABIER

Klaudiarentzat aproposa.

KLAUDIO

Ai, ama!

NESKA

Zuretzako XXX baita ere.

KLAUDIO

Ai, ze polita!

NESKA

Esate baterako, bueno, ba, horrelako kareta ere ibiltzen dira.

XABIER

Jarri behar al dugu?

KLAUDIO

Hombre, jarri!

NESKA

Beldurgarriak dira, ezta? Benetan beldurgarriak dira. Bueno, horrelakoak ere ateratzen dituzte. Edo belak, kalabaza itxurakoak, edo horrelako gantxitoak, jarri egingo dut...

KLAUDIO

Gantxito?

NESKA

Bai, oso politak dira.

XABIER

Burrurako.

NESKA

Ez, bururako. Hemen jartzeko, txukun, txukun. Lotzen baldin badut...

KLAUDIO

Ya está!

NESKA

Ya está! Eta belarritakoak, *por ejemplo...* eta horrelako kontuak. Bueno, ba, hauek guztiak, esan bezala, Euskal Herrian aurkitzen dituzue. Horrek esan nahi du gero eta gehiago ikusten diren kontuak direla, ezta? Angelita dendatik hartu ditugunak. Nik batekin nahikoa daukat, bale?

KLAUDIO

Aizu, eta sorgin kontuak eta... aizu, Halloween-en aingeruak agertzen al dira?

NESKA

Aingeruak ez. Aingeruak ez dira agertzen ez direlako... deabruak agertzen dira, juntu kontrakoak.

KLAUDIO

Ya, ya, eta sorginak eta horrelakoak.

## ATAZA: MERDEALDIEN ZURRUNBILOAN

### 2. LEGE-AHOLKULARITZA SAREAN



#### 8. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 17'25"

Begoña Muruagarekin elkarrizketa

- AURKEZLEA** Nik ez dakit irudien gainean zegoen musika horretan azaltzen zen letrak zerikusirik daukan errebajekin, ezta?
- BEGOÑA** Ez, ez dirudi, ezta?
- AURKEZLEA** Ez. Ez dakit. Esan nahi dizut... egin dugunean nahita jarri dugula: hagamos algo superficial y vulgar. Ez dakit azalekoa eta arrunta den errebajetara joatea, edo ez, baina bueno...
- BEGOÑA** Bueno, nik ez dakit gero igual bukaeran pixka bat honetaz hitz egin dezakegu, bakoitzak ze jarrera duen errebajen aurrean. Nik pixka bat aztertu nahi nuen gaur egun errebajen inguruan dagoena, bai eroslearen eskubideak zeintzuk diren, igual zergatik egoten garen eta bukaeran, ez dakit igual horretaz hitz egin dezakegu. Bueno, nik uste dut atzo hasi zirela Euskal Herriko leku gehienetan, protesta ere izan dira lehenago ere hasi zirelako zenbait lekutan... eta legalki ez omen da egokia, orain urtarrilekoak izan behar omen dute errebaja hauek baina atzo hasi ziren, nik uste dut, leku gehienetan errebajak, ezta? Orduan Euskal Gobernuak 1986an arautu zuen, zeren ordurarte nahiko gorabehera egoten zen eta arautu zuen nola aurkeztu behar diren, jendeari zer informazioa eman behar zaion, jendearen eskubideak zeintzuk diren, ezta? Arau horien artean zegoen, ba, ez dela nahikoa produktua zenbat merkatu den jartzea, portzentaia jartzea. Adibidez, %20a merkeagotu da, edo %40a edo %50a edo %70a. Jarri behar da prezio zaharra eta prezio berria. Gainera Euskal Kontsumo Sailak ere 89an atera zuen halako liburuskatxo bat kontsumitzailearen eskubideak zeintzuk ziren adierazteko eta denok jakin dezagun errebajetara goazenean zeren aurrean aurkitzen garen eta zer eskubide daukagun. Orduan, kontutan hartu behar dira beste gauza asko ere, ezta? baina produktuak ezin dutela inolako akatsik eduki, nahiz eta errebajetan egon. Eta gero, ezin direla izan normalean dendan saltzen ziren... ez ziren produktuak, osea, horretarako bereziki, ez dakit, almazen batetik-edo ekarritakoak. Baizik eta dendan ordura arte saltzen ziren produktuak baina merkexego. Eta gainera, etiketadunak izan behar dutela beti. Erosleak ezin duela erosi... ez lukeela erosi behar, behintzat, etiketarik gabeko produkturik, zer etiketan jartzen du, normalean, produktuaren konposizioa, eta gero, arropa bada, nola garbitu: hotzean, berotan, edo holako kontuak, ezta? Orduan, liburuska horrek zioen, gainera, erosle onak hiru ezaugarri behintzat badituela, eta bete beharko lituzkeela bai normalean erosten duenean eta bai errebajetan erosten duenean. Eta hauek dira: garantia eskatu beti, faktura exijitu —faktura, nota edo zerbait, gero erreklamazioa egin behar bada zerbait edukitzeko— eta gainera edozein arazoaren aurrean beti erreklamatu.
- AURKEZLEA** Badakizu zenbait kasutan eta errebajetan horretan erosle-saltzaileen arteko kontua dela: botoi bat falta zaio, baina egingo dizut ez dakit zenbat merkeago, eta orduan biok ados jartzen gara eta punto. Adibidez, beste zenbait lekutan errebajetan txartelarekin ez dute uzten ordaintzen, adibidez.
- BEGOÑA** Bai. Teorian, teorian behintzat, merkealdian, errebajak baino lehenago kreditu-txartela onartzen duten dendak onartu beharrean daude, ez badute espreski eta oso leku agirian jartzen: “errebajetan ez da kreditu-txartelik onartuko”. Horrelako txartelik ez badago espreski jarritakorik, zuk ordura arte erosi baduzu denda horretan eta badakizu onartzen dutela, behartuta daude erostera. Nik pentsatzen dut, horregatik zen gaurko gaia, ezta? geure eskubidea jakin behar ditugula, zeren zuk diozun hori egia da, akatsen bat dauka eta zuk esaten diozu, aizu, badakit ezin duela akatsik eduki, baina errebajetan 6.000 pezetatan utzi beharrean, utziko dizut 4 edo 5.000 pezetatan, ezta? Orduan...
- AURKEZLEA** Baina horretan denak egoten gara konforme.
- BEGOÑA** Bai. Bai, eta gero bereiztu behar direla... eta horregatik esaten nuen lehenago hitzaren kontua, ezta? bereiztu egin behar dira errebajak, saldoak eta likidazioak. Baldintza ezberdinak betetzen dituzte eta gainera exijentzia ere desberdina da. Osea, errebajak dira lehen esan dudak bezala. Lehenagoko produktua, osea, denda horretan lehenago zegoen produktua, produktu berbera eta gainera, teorian, behartuta daude produktu guztiak merketzera. Zer gertatzen da? Ba, batzutan merketzen dituztela bakarrik garai horretakoak direnak eta hurrengo urtean, edo hurrengo sasoiaren edo salduko ez direnak. Baina horiek dira saldoaren barruan sartzen direnak. Osea, errebajen eta saldoen arteko desberdintasuna

da saldoetan jartzen dela normalean, ba bueno, sasoi batekoa ez dena. Ez dakit, uda partean saldu dituzu udako arropak, udazkenean saldoetan jartzen dituzu udako arropak interesatzen zaizulako, ba, jada, eskaparatea aldatzea produktu horiek ezin dituzulako saldu eta hurrengo urtean, seguru aski, aldatu egingo delako moda, ezta? Likidazioa, bestalde, dira, teoriar behintzat zeren nik ikusi dut denda bat likidazioetan urteetan. Teoriar denda bat ezin da egon likidazioan urteetan. Izan behar du benetan itxi egingo dutela edo jabez aldatuko dela edo halako erabakia hartzen denean, ba, bueno likidatu egiten dute, hitzak esaten duen bezala, *osea* dena jartzen dute salgai askoz ere merkeago. Orduan, nik, ba, errebajen aurrean, ba, ez dakit, halako dekalogo bat, *osea*, 10 arau jarri ditut eta gomendatuko nioke mundu guztiari, ba, hori, ez? Denda batera gaur bertan, denda batera joan aurretik arau hauek kontutan hartzea.

**AURKEZLEA**

Egon pixka bat, Begoña, baten batek galderarik egin nahi baldin badu errebajen inguruan gure telefonoak agertzen zaizkizu. Ia, berriz, ere azaltzen diren, eta hor ikusiko dituzue nora deitu behar den eta dekalogo horretako, oraintxe esango diguzu, zerbait errespetatu ez badute orain arte errebaja guztietan, Begoñari erreklamatu. Bota dekalogo.

**BEGOÑA**

Erreklamatu ez, errespetat dezatela!

**AURKEZLEA**

Bueno, erreklamatu esan, aber zer eskubide duten.

**BEGOÑA**

Lehenengoa, nik pentsatzen dut dekalogo honetan lehenengoa eta inportanteena dela, eta gainera nik pentsatzen dut... ondo pentsatu erosiko duzun hori behar duzun ala ez. Zer askori gertatzen zaigu, bueno, ba, errebajak direla eta dendatara joaten garela eta behar ez ditugun gauzak erosten ditugula eta azkenean gero etxean ikusten duzu eta egia da igual 2.000 pezeta, 3.000 pezeta, 4.000 pezeta kostatu zaizula eta esaten duzu: bueno, baina oso merkea zen! Begira, ba, abrigua 5.000 pezetatan, edo alkandora bat 1.500ean, esaten duzu, baina oso merkea zen. Eta gero ez baduzu sekula jartzen arropa hori garestia atera zaizu. Nahiz eta oso merkea izan errentagarritasuna handiagoa ateratzen diozu 10.000 pezetako alkandora bati pila bat erabiltzen baduzu eta ez 1.500ekoari sekula erabiltzen ez baduzu. Orduan, lehenengo araua da behintzat ondo pentsatu erosiko duzuna behar duzun.

**AURKEZLEA**

Txiste batek esaten zuen bezalaxe, ezta? hain zuzen ere: batek hiru kaiolekin etxera joan zela eta: txoririk ez daukagu eta. Bai, baina eske hain merke zeuden!

**BEGOÑA**

Hori da.

**AURKEZLEA**

Eta hiru kaiolekin etxera, ezta?

**BEGOÑA**

Gauza bera, gauza bera. Bigarrena izango litzateke ondo asegurat... hau zaila izaten da, gainera, denda ezagutzen ez baduzu oso zaila da. Lehendik denda ezaguna bada, ba, zuk askotan erosi baduzu eta hori bai. Baina, adibidez, denda baten aurretik pasatzen zara eta eskaparatean ikusten baduzu ba zure gustuko zerbait errebajatan, ba, oso zaila da frogatzea, eta hemen komeniko litzateke ondo asegurat produktuaren kalitatea, *osea*, orain erosten duzun produktuaren kalitatea eta lehenengoa berdina dela. *Osea*, ez dela, lehen esan dudana bezala, hor almazen arraro batetik atera duten ez dakit zer arropa klase, tejido aldetik ez dakit zer klase kaxkar samarra, lehenengo garbiketa baten zorratuko zaizuna, eta abar eta abar. Zaila izaten da denda ezagutzen ez bada, eta nik pentsatzen dut nahiz eta araututa dagoen tranpa asko eta asko egiten dela. Nahiz eta atzo bertan telebistan entzun nuen Euskal Komunitate Autonomoan kontrol handia dagoela eta denda gehienak betetzen dituztela arauak. Susmoa daukat geuk izan behar dugula benetan geure eskubideak defendatu behar ditugunak, zer dendariak beti... ez dakit, tranpatxoren bat egiteko prest beti daudela, ezta? Hirugarrena izango litzateke lehen esan dudana gauza bat, eta da: ez erosi sekula etiketarik gabeko produkturik. *Osea*, jakin gabe ze konposiziotakoa den eta hau, batik bat, ba, bueno, arropa kontua izaten da, zer askotan, ba bueno, ez dauka etiketarik ez dakizu konposizioa eta hau emakumeok gizonak baino gehiago dakigu, ba bueno, sartzen duzu labadoran eta, a! eskuan garbitzekoa zen. Edo sartzen duzu ez dakit zenbat tenperaturatako uretan eta ez dakit zer... Bueno, gizonak ere ikasten ari dira azken boladan, e?

**AURKEZLEA**

Bai, akabo, bada!

**BEGOÑA**

Esan behar... dena esan behar da. Konprobatu... eta hau ere askotan zaila izaten da, ahal den heinean, behintzat, benetan merketu egin dutela produktua, zeren askotan beraiek esaten dute: lehen honek 10.000 pezeta balio zuen eta orain 5.000. Baina guk ez dakigu.

**AURKEZLEA**

Lehen 4.000 balio baldin bazuen, orain bost.

**BEGOÑA**

Klaro, ni harrিতuta geratzen naiz, adibidez, atzo bertan, ez? Denda bateko eskaparatean 11.900 balio zuen produktu bat zegoen orain errebajatan 900 pezetatan. Orduan esaten duzu, edo adarra jo digute urte guztian zehar ia 12.000 pezeta balio zuen gauza batek benetan eta badirudi ez dutela galtzen. Badirudi errebajarekin... edo gutxi galtzen dutela. Orduan, 12.000 pezetatoko gauza bat ia 1.000 pezetatan salgai badago, Birjina maitea!

### 3. Eranskinak

# D

- AURKEZLEA** Halako txantajea egin digute.
- BEGOÑA** Tontoarena egiten egon gara urte guztian, ezta?
- AURKEZLEA** Politagoa izaten da gainera batek ikusi eta: aizu, ba berdina daukat, baina errebajetan erosi dut. Eta zenbat pagatu duzu? eta 5.000 mila. Ba, nik 10 pagatu nuen!
- BEGOÑA** Bezperan, seguru aski. Gero, beste gauza bat lehen esan dudana baita: ez dela nahikoa, hori nik uste dut nahiko errespetatzen dela, ez dela nahikoa jartzea %20 merketu da edo %40 edo %5 edo %10. Jarri behar du, hori bai, izan daiteke horrela kartel bat jendea erakartzeko, baina produktu bakoitzean jarri behar du lehengo prezioa eta oraingo prezioa, zuk ikus dezazun benetan. Gainera, batzutan neu ere harritzen naiz, ezta? ikusten dudanean lehengo prezioa: eta jartzen du 50.000 pezeta; eta oraingo prezioa: 25, ba esaten duzu, bueno, ba, nik ez dakit 50 balioko zuen, 25etik hurbilago dago seguru aski bere balio benetakoa ere.
- AURKEZLEA** Badaude zenbait denda oraindik lehengo prezioa mantentzen dutenak eta gero kalkuluarekin ehunekoaren portzentaia egiten dizutenak.
- BEGOÑA** Bai. Gero, beste aholku bat, gutxitan gertatzen dena eta bueno... batzuetan gertatzen da, arraro egin zait, baina gertatzen da, eta da jendeak ez lukeela onartu behar horrelako proposamenik. Adibidez, errebajetara doa, zerbait erosi nahi du errebajetan —denda gutxitan egiten da— baina esaten dizute: hori erosi nahi baduzu eta hor benetan errebajetako prezioa aplikatzea nahi baduzu, erosi behar duzu beste gauza bat errebajetan ez dagoena. Lehen esan dugun bezala, teoriarik behintzat, dendan denak egon behar du errebajetan. Orduan ezin da esan: a! hau erosi nahi duzu? Bai baina horri aplikatzeko errebajetako portzentaia orain erosi behar didazu beste hau. Azken batean...
- AURKEZLEA** Edo hiru eramaten badituzu deskontua handiagoa egin edo txikiago egin.
- BEGOÑA** ...txantaje kontua da. Ez duzu erosten erosi nahi duzuna baizik eta... bueno, gauza bi erosten dituzu eta igual bestea seguru aski ez duzu behar. Hemen ere gero norberak egiten ditu bere kalkuluak: bestea ez dut behar baina bueno, total...
- AURKEZLEA** Bai, ba, hori ba, kaiolaren ipuina.
- BEGOÑA** Kaiolarena, gauza bera.
- AURKEZLEA** Eta gainera, bost pare galtzetin eramaten badituzu %30a, eta lau eramaten badituzu, %20a...
- BEGOÑA** Eta ez duzu pentsatzen ea zertarako arraio behar ditugu bost galtzetin pare, zeren gero igual modakoak badira, ba, handik hiru urtetara jada ez zaizkizu gustatzen...
- AURKEZLEA** Eta gainera aukeratu behar dituzu stockean han daudenak.
- BEGOÑA** Hor daudenak, bai, bai, bai, bai. Kolorea, edo estiloa, edo marka edo dena dela, ezta? Orduan, exijitu beti nahiz eta errebajetan izan, eta nik pentsatzen dut hemen ñeta nik aitortzen dut ni neu ere tranpan erortzen naizela— garantia bat, erosi ondorengo garantia bat. Zu konturatzen bazara etxean, igual momentu hartan ez zara konturatzen ze gauza pila bat artean hartzen duzu gauza bat eta konturatzen bazara akats bat duela, akats hori benetan konponduko dizutela, edota bueno, konponbide batera iritsi, merkeago egin akats horrengatik, edota... bueno, kasu honetan ezin dizute balerik eman akastuna bada. Akastuna bada automatikoki itzuli behar dizute horren dirua, edota zuk erosi nahi baduzu horren orde bestea gauza bat aukera daukazu. Baina balea beti da, ba ez dakit, igual, ba, dendan gaizki neurtu duzu eta gero etxean zarenean konturatu zara estuegi zenuela edo handiegia zela, edo bueno, beste arrazoiren batengatik. Orduan, balea da beti produktu onaren truke ematen dizuten agiria. Ez du balio akats bat duelako ba, bueno, barkatu, baina emango dizugu bale bat. Hor ez da onartu behar balerik, dirua eskatu behar da edota trukatu: hau hemen utziko dizut eta honen orde bestea produktu bat erosiko dizut, ezta?
- AURKEZLEA** Zenbat puntu falta zaizkizu?
- BEGOÑA** Eta... hiru.
- AURKEZLEA** Azkar, azkar.
- BEGOÑA** Kreditu-txartelei buruz, lehen esandakoa: onartzera behartuta daude baldin eta —lehen onartzen zutenak, klaro! orain ez dute jarriko ezta?— baina baldin eta espresuki jartzen ez badu kartel bat dendan. Gero tiketa beti exijitu. Gero gerta daiteke, ba, ez baduzu inolako justifikaziorik, bueno, ba... niri ez zait inoiz gertatu, ezta? baina gertatzen da, ba, bueno, nola dakigu hemen erosi duzula? Gauza berezia bada ez, baina gauza arrunta bada, gerta daiteke hori. Eta beti irregulartasun bat sumatzen denean, beti erreklamatu dendan eta gero dendan ez badizute erantzunik ematen edo zeure gustuko erantzunik behintzat, beti, ba, badaude zerbitzuak, bai Euskal Gobernuak badauka Kontsumo Saila, bai... gu Gasteizen, behintzat, badaukagu udal bulego bat kontsumitzaileen defentsarako, ba, holako bulegora jo norbere eskubidea defendatzeko.
- AURKEZLEA** Baten batek badauka erreklamazioa edo galdera edo dudaren bat. Arratsalde on!
- ENTZULEA** Arratsalde on! Aizu!

- AURKEZLEA** Nor zara?
- ENTZULEA** Bueno, nik hots egiten dizut Aizarnatik.
- AURKEZLEA** Eta nor zara?
- ENTZULEA** Carmen.
- AURKEZLEA** Oso ondo, bota zure galdera.
- ENTZULEA** Begira, ni joan nintzen udaran blusa bat erostera Donostiako denda onenetako batera. Eta gustatu zitzaidan blusa bat eta esan nion nola errebajetan zegoen denda, ba, errebaja egiteko, ezta? Eta esan zidan ezetz, azkeneko modelook nola ziren, ezta? Izena dendarena ez dizut esaten...
- AURKEZLEA** Ez, ez esan. Pribatuan nahi baldin baduzu, gero. Eta orduan, hori da kontua, ezta?
- ENTZULEA** Joan nintzen eta blusa hori esan nion, ba, gustatzen zitzaidala eta hartzen hasi nintzen eta esan zidan... bueno, blusa eta beste gauza batzuk ere bai, eta azkeneko modelook eta nola ziren, ba, esan zidan — denda onenetako bat, Donostiakoa, e?— eta esan zidan ezetz.
- AURKEZLEA** Errebajarik ezin zizula egin.
- ENTZULEA** Ba, bueno, orduan hola gelditu nintzen. Eta orain esan duzue hori ez daukala egiterik, ezta? Ba, oso ondo iruditzen zait programa hau, porque claro, ni orduan gelditu nintzen tuntun bat bezala. Eta bueno, eta orduan irten nintzen dendatik porque beste gauza batzuk bazeuden errebajatan baina haiek ez zitzaizkidan gustatzen. Entenditzen duzu?
- AURKEZLEA** Oso ondo, Carmen. Bueno, zure duda baino gehiago kexa hartua dago eta Begoñak esan duenarekin batera, berak hobeto erantzungo dizu, baina nik uste arrazoia zeneukala.
- ENTZULEA** Bueno, nire kexa horixe da.
- AURKEZLEA** Bale, ba, mila esker, Carmen.
- BEGOÑA** Hala ere teorian.
- ENTZULEA** Zeren askotan denda horiek aprobetxatu...
- AURKEZLEA** Bueno, hortxe joan zaigu Carmen...
- BEGOÑA** Teorian, teorian, nik beti irakurri izan dut, eta niri gertatu zait hori, adibidez. Denda batera joan, errebajetan zegoen denda batera, baina juxtu nik nahi nuen arropa, edo nik nahi nituen prakak, edo nik nahi nuen alkandora, hori ez zegoen errebajatan. Eta teorian nik beti irakurri izan dut, eta hemen seguru aski kontsumitzaileen elkartera jo beharko litzateke benetan gure eskubideak zeintzuk diren jakiteko, teorian horrela da, osea, produktu guztiak egon behar dute errebajetan, baina gero praktikan zer gertatzen da? Normalean, normalean modatik pasatzen ez diren prakak, adibidez, edo modatik pasatzen ez diren zapatak edo holakoak, ez dituztela jartzen. Orduan, esaten dut teoria eta praktikaren artean alde bat dagoela, eta nik pentsatzen dut Euskal Gobernuak atera duen txosten horretan horrela bada, behartuta badaude, eskubidea daukagula. Susmoa daukat gauza bat dela teoria eta gero praktikan eskubide daukatela dendariak beraiek nahi ez dituzten produktuak ez jartzeko. Susmoa daukat, e? nahiz eta teorian esaten den dena jarri behar dela errebajetan.
- AURKEZLEA** Begoña, pasatu gara... orduetik pasatu gara eta nahikotxo gainera. Akabatuko gaituzte gure kontinuidateko lankideek. Dena dela ere eskerrik asko eman behar, ba, uzteagatik tarte hau.

## 2. IRRATI-PASARTEAK ATAZA: HAURREN GOZAMENA



### 1. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 5'30"

Umeen adierazpena

**JON**

Kaixo Olentzero! Jon Ezeiza naiz eta oso ondo portatzen naiz aita eta amarekin. Batzutan bihurrikeriak egiten ditut, baina ez dira gaiztakeriak eta nere arrebarekin oso ondo portatzen naiz. Askotan bisitatu zaitut zure mendian.

**OLENTZERO**

Eta zer eskatu behar diozu Olentzeroari? Gauza asko ala gauza gutxi?

**JON**

Eta gauza gutxi eskatuko dizut.

**OLENTZERO**

Norentzat dira gauza horiek Jon?

**JON**

Batzuk niretzat eta besteak nire arrebarentzat.

**OLENTZERO**

Zer eskatu nahi duzu zuretzat?

**JON**

Dragon errobot bat botatzen dituen pilotak eta gero salto behar dizkiozu besoan, eta dauka linterna bat argiztatzeko. Robot hori nahi dut aldizkari batean ikusi nuelako eta oso polita iruditu zitzaidan. Benetan nahi nuke ekartzen dezadan. Gainera nahi nuke kotxe bat urrutitik gidatzen dena eta... eta itxuraldatzen dena. Eta Elirentzat gaztelu bat katapultarekin eta kainoiarekin eta artzainekin zaindarekin errege-erreginarekin. Gaztelu hau aukeratu dut nire arrebak gustatzen zaizkiolako borroka jolasak. Eta Xabiertzorentzat parke bat jostailu pila batek.

Bueno, Olentzero, hori da guztia. Ez da gehiegi. Espero dut hori guztia ekartzea eta horretarako zure abestia kantatuko dizut.

Olentzero...

Horra Mari Domingi...

Agur eta musu handi bat.

## ATAZA: OPARI SINBOLIKOA



## 2. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 7'

Airean idatzitako postalak

- GARIKOITZ** Hamar egun. Hamar egun falta dira Gabon Gaua harrapatzeko. Hamar egun besterik ez. Eta, bidali al dituzu jada Eguberria zorionduz bidali ohi dituzun postal horiek? Egin al duzu jada lan hori? Ezetz? Ba, badakizu, erosi kristma bat, edo idatzi eskutitz bat, sobrea eta seilua ere ez ahaztu eta bidali lehen bait lehen. Ze, badakizu, gainera, data hauetan posta zerbitzua ere ez dela beste sasoi batzutan bezain azkar ibiltzen. Eta lan guzti hauek hartu nahi ez badituzu, guk *Goizean Behin* modu azkarrago batez eskainiko dizugu zuk nahi diozun hori zoriontzeko aukera, emango dizugu zoriontzeko aukera. Airean idatzitako postalak atala zabalduko baitugu gaurtik aurrera, edo datorren astetik aurrera. Bueno, gaurtik aurrera idatzeko aukera izango duzu. Nola idazten den airean postal bat? Ba, oso erraza. Hara, zuk guri hots egingo diguzu, zure telefonoa utzi, guk zuri etxera hots egingo dizugu eta zure mezua grabatuko dugu eta datorren astetik aurrera aireratu egingo ditugu Eguberri agur horiek, airean idatzitako postal horiek, alegia. A! Grabatu?
- ESATARIA 2**
- GARIKOITZ** Bai, bai. Grabatu.
- ARANTXA** Horregatik airez idazten dira?
- GARIKOITZ** Horregatik, horrela idazten direlako irratiz postalak.
- TERE** Bai, borroiak eta zuzentzeko modua da gainera, grabazioarena.
- GARIKOITZ** Beno, gero aholku batzuk emango dizkizuet nola... bueno, zuei ez, badakizue...
- NEKANE** Guk ez ditugu akatsik izaten eta.
- ARANTXA** Guk badakizu airean idazten.
- GARIKOITZ** Baina jendeari emango dizkiot aholku batzuk. Adibideekin segituan ulertuko dute gure entzuleek nola egin behar duten edo nola idatzi behar dute postal hau. Adibidez, zuek, Nekane, Tere, Arantxa, nola hasiko zenukete airean idatzitako postal bat? Zer esanez?
- ARANTXA** ... ez dakit, idatzitako postalak badaude aurrez testu bat badutenak...
- GARIKOITZ** Ez du balio horrelakorik, e?
- NEKANE** Sinatu eta listo.
- ARANTXA** Ez, dena idatzi egin behar da. Ba, ez dakit, ni hasiko nintzateke: Aupa, aspaldiko! Esate baterako, segun eta nori.
- GARIKOITZ** Zu nola hasi zinateke?
- TERE** Kaixo familia!
- GARIKOITZ** Nekane?
- NEKANE** Bizi naiz! Zer holakoetan urtean behin emandako postalak izaten da eta bizi naiz...
- GARIKOITZ** Ba, horregatik ikusten dut modu ezberdin daudela edo has zintezke, bueno, kaixo familia! esan duzu, baina kaixo bakarrik esanez; lepa! esanez, baita ere; egun on! ze postala goizez aireratuko dugu, goizean idatziko dugu postala; aupa! esanez; edo oso tipikoa: Eguberri on! Urteberri on!...
- ARANTXA** Eguberri on! Zorionak! esanez...
- GARIKOITZ** Bueno, ondoren, nahi izatera zure izena esan dezakezu. Alegia, nork zoriondu nahi duen. Zoriondu nahi duzun horrek ulertuko badu esan: Mikel naiz. Bestela, Mikel Etxabe naiz, edo gauza gehiago zehazte aldera zein eta nondik ere esan dezakezu: Mikel Etxabe Oñatikoa naiz. Edo aizu! nahi izatea eman datu gehiago: Mikel Etxabe Oñatiko Barrenkaleko 6.eko zure bizilaguna naiz. Zure burua aurkeztu ondoren nori zuzendutako mezua den: pertsona bakar bati baldin bada aurrekoan bezalaxe eman nahi dituzun datu guztiak. Edo, bestela, Etxabetar familiari zuzendutako mezua dela esan dezakezu, edo-ta zure koadrilari edo betiko esaldiak, gurean garai batean ezagun egin zirenak: etxeko guztien partez, osaba-izeba, aitona-amonak, lehengusu eta biloba guztiei Eguberri on! Zer bestea hori da: segun eta nola hasi duzun postala hala jarraitu behar duzu: oso itsusia izan ohi da postala Eguberri on batekin hasi eta gero zuk nahi duzun horri Eguberri onak ematea. Hobe, adibidez, ondo pasa ditzazuela egun hauek, edo-ta urte zaharra ondo bukatu eta berria hobeto hasi esatea, ez? Horrelako aukerak...
- NEKANE** 2000.era ailegatu garela!
- GARIKOITZ** Hori da. Gainera zuk esandako horiei musika ere jarriko diegu, badakizue, huts-hutsean geratu ez dadin kontua.

### 3. Eranskinak

# B

**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**

Zeharo animosoa geratuko da honekin behintzat postala: Aupa familia!  
Ez, ze kontua da nahi duzun mezua erabili dezakezuela eta horretarako behar duzun tonua ere bai, Arantxa. Adibidez, maitekiro zoriondu dezakezu zure azukre koxkorra: Kaixo nire bihotzeko azukre koxkorra. Badakizu nor naizen, eta airean idatzitako postal honen bidez...

**NEKANE**  
**GARIKOITZ**

Eta nolakoa zaren ere bai.  
... bihotzez Eguberri ona pasa ditzazula opa dizut, nire ondoan, noski. Askoz ere tonu normalagoa ere erabili dezakezu, eta horretarako, ba, musika aldatuko genioke: Kaixo, Justa Agirre naiz, zoriondu nahi nituzke nire seme-alabak eta familia guztia. Oraintxe hemen ondoan dauzkat, baina igual du, airean ateratzea nahi dut eta hau. Zorionak eta felizidade asko. Beste aukera batzuk ere badaude. Adibidez: *Qué pasa tronko! Tios radioan* nagoela, airean postalak idatziz, zein eta ni gainera. *Bueno, tios*, ez naiz enroilatuko. *Aber* Gabon gauean kominola kristona izaten dugun, eta ya gero buelta bat ematen dugun herrian, zeren jada, niri aitona eta amonarekin puntuan ibiltzea, no me mola. Ah, eta ez ahaztu! Aurretik poteo *guay-a* daukagu: 6etan Izarpe tabernan. Eta ama, ez ahaztu ganbak eta pintxo horiek jartzea, *porque* daude *de chuparse los dedos*.  
Tono poetiko bat ere eman diezaiokezu: Eguberri-berri; urte berri-berri; urte berriaren atari; nik zoriondu zuri eta espero zuk niri. Oi, Eguberri! Zoriona dugu aberri.

**TERE**  
**ARANTXA**  
**TERE**  
**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**  
**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**

Edozertarako lizentzia ematen duzula, alegia.  
A, ze ideia pila!  
Eta denbora mugarik?  
Ezta ere.  
Aholkutan aipatuko dut. Baita ere.  
Itxura batera ematen du ezetz.  
Ikusiko duzue zergatik. Bueno, zuka, hika, berorrikan, nahi duzuen bezala idatzi dezakezue zuen postala eta idatzitako hori kantatu ere kantatu dezakezue. Adibidez:  
Din-dan-don din-dan-don Eguberri on!  
Xabier Etxabe mila zorion.  
Horrela ere egin dezakezue postalak.

**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**

Oso ondo.  
Honetan ere ez dugu mugarik jarriko. Nahi duzun doinua erabili. Bertsotan ere idatzi dezakezue postala, eta zergatik ez, baita abestu ere bertso hori. Postalaren hasierakoa bezala bukaera ere oso garrantzitsuak dira. Zorionak, Eguberri on, Urteberri on eta horrelakoak erabili ditzakezu, baina originaltasunari mugak jartzea gustatzen ez zaigunez, nahi duzun bezala errematatu ahozko idatzi hau. Bueno, gomendio guztia eman ondoren azken aholku batzuk. Saiatu katarrorik gabe zaudenean guri hots egiten; bi: guk hots egin aurretik ahotsarekin ariketa batzuk egiten badituzu kalterik ez, zer gure postaletako tinta zure ahotsa da. Kantatu gabon kantuak guk hots egin aurretik, entsaiatu. Ez jarri urduri eta lasai hitz egin, bestela ez zaizu ezer ulertuko. Laugarren gomendioa: saiatu postal luzeak ez idazten, ze bestela, Arantxa, ez dugu denak aireartzeko denborarik izango.

**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**  
**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**  
**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**

Ez, nola adibidetan asko luzatu zaren pentsatu dut... Bale, ezin litezke oso luzeak izan.  
Bueno, esan dizudan moduan: lehendabizi zuek guri hots egin telefono honetara: 943 012 347ra.  
Hara, *Goizean Behingo* telefonora!  
Bai, harrigarria, ezta?  
943 012 347.  
Hots egin eta guk zurekin jarriko dugu hitzordua. Postala airean idatziko dugu eta egun berezia inguratzen doazen heinean irrati bidez airean jarriko ditugu 943 012 347.

**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**  
**ARANTXA**  
**GARIKOITZ**  
**ARANTXA**

Eta norbaitek nahi balu Garikoitz, zuk kantatzea bere ordeztu?  
Negoziatu egingo genuke.  
Oso ondo.  
Aginaldoak ere onartzen baititugu.  
Airean idatzitako postalak, jaun andreok, zuen eskura gure betiko telefonoan 943 012 347 telefonoan.



## ATAZA: KONTSUMOA GABONETAN



## 3. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 7'30"

- ESATARIA 1** Hogei egun besterik ez urtea amaitzeko eta oraindik gutxiago Gabon egun eta Olentzeroren etorrerarako, ezta? Beraz, urte honenak ere, ba, egin du.
- ESATARIA 2** Urte honenak egin duela esan beharko dugu baina ez urte zaharrari despedida on bat eman nahi izatearenak, ezta? Eta horretarako Gabon jaien aitzakian, ba, hortxe, hortxe, erosketen mundu zaratatsu eta distiratsu hori, ez da hala, Antxon? Arratsalde on.
- ANTXON** Baita zuri ere, arratsalde on! Ba, bai. Baietz esan behar, erosketen mundua beti da, noski, zaratatsu eta erakargarri eta hori bakarrik balitz gaitz erdi. Okerrago da erosketak zorabio eta eromen bihurtzen direnean. Eta hain juxtu ere, ba, horretaz hitz egin dezakegu gaur. Hitz bakar batez kontsumoa deitu ohi dugun fenomeno horretaz.
- ESATARIA 2** Hauxe, beraz, gaurko gaia, gaurko aztergaia eta entzuleak jakin dezan esan beharko dugu *Salako Leihoa* gaur jendez ondo bete zaigula, zer denontzat lekua egitean nahiko lan...
- ESATARIA 1** Bai, hala da.
- ESATARIA 2** ...*Salako Leih*o honetan. Ba, sei lagun izango dira... edo izango gara guztira eta...
- ESATARIA 1** Sei lagun, alajaina! Etxeko hiru eta kanpotik etorri zaizkigun hiru bisitari, hiru gonbidatu: Jose Mari Larramendi, arratsalde on egin dizula.
- JOSE MARI** Arratsalde on!
- ESATARIA 1** Zer moduz, Jose Mari, ondo?
- JOSE MARI** Izugarri ondo.
- ESATARIA 1** Tira, bada. Ba, beti ere kontsumo eta kontsumitzailearen inguruan dabilen soziologoa, noski. Eneko Astigarraga, zu ere halatsu, ezta? Prospektikalari bati dagokion moduan, arratsalde on!
- ENEKO** Arratsalde on, bai.
- ESATARIA 1** Ondo zaude, Eneko?
- ENEKO** Baita, bai.
- ESATARIA 1** Eta, hirugarren bat. Psikologo irakasle bat. Gure bertute eta ahuldadeen berri eman diezagukeena: Juanjo Arrospide. Arratsalde on!
- JUANJO** Arratsalde on!
- ESATARIA 1** Ondo zaude, Juanjo?
- JUANJO** Bai, bai. Oso ondo, eskerrik asko.
- ESATARIA 2** Hauexek, beraz, gaurko hiru konbidatuak...
- ANTXON** Jakingarri litzateke hitz handi horren atzean, hau da, kontsumo hitzaren atzean, ba, zein den gutako bakoitzak duen... edo atzematen duen lehen kontzeptu edo ideia nagusia. Berehalaxe ikusiko dugu oso fenomeno konplexua dela kontsumoa gure gizartean, baina hori, hasteko behintzat, ze kontzeptu, ze ideia, edo besterik ez bada, ze hitz klabe ikusten duzue bakoitzak kontsumo hitzaren atzean.
- JOSE MARI** Gabonak inguruan eta kontsumoari lotuta nik neronek hiru hitz erabiliko nituzke produktua, Gabona bera produktu bezala, gero, gertakari eta ekintza sozial guztiak gabonen inguruan, gertatzen direnak eta Gabonari lotuak eta azkenik, Gabona bera sinbolo bezala eta nik esango nuke ez dugunaren ilusio eta ez garenaren osagarri edo horrelako zerbait. Guzti hori.
- ANTXON** Tranpa txiki bat, beharbada?
- JOSE MARI** Agian.
- ESATARIA 2** Psikologoa, adibidez, Juanjo.
- JUANJO** Bueno, ni hona etorri naizenean pentsatzen etorri naiz nola hartu gaia, kontsumoarena, eta uste dut kontsumoaren gaia bera, halako konnotazio kaskar bat izaten duela gehienbat zabaldua dagoena. Ez hainbeste gaur egun ekonomilari eta beste batzuen artean, nik uste dut kontsumoarena errebindikatzen den kontzeptua dela. Baina gizartean zabaldu da halako... ez egokiaren zerbaiten antzekoa. Orduan eztabaida hori da, kontsumoan jokabide pertsonalak nola ematen diren. Nik uste dut hartu beharko litzatekeela ardatz bat. Gaur egun galdera, nik uste dut, nagusia izaten dela: gehiegi kontsumitzen al dugu? Eta zuzen edo oker kontsumitzen al dugu?
- ESATARIA 2** Eneko?

**ENEKO** Bai. Bueno, piska bat kontrapuntua jartzearen psikologiatik entzun dugun ikuspuntua... nik kontsumoa gehiago ikusiko nuke —baita ere kendu gabe ardatz pertsonala duena— ikusiko nuke gertaera sozial eta ekonomiko bezala. Eta entzun dugu... eta gainera gertakera bat aldaketa handiak jasan dituen, zuk aipatu duzun bezala, eta aldaketa handia jasoko dituen, ez badaude hor, ba, etorkizunari begira, kontsumitzaile berri bat sortzen ari da, baita ere kontsumo formak edo berriak, teknologia berriei lotuta: Internet... gero, kontsumidorea berak gero eta podere gehiago lortzen ari du, edo behintzat lortu dezake. Eta hortik, pentsatzen dut etorkizunari begira badaudela alde berri batzuk.

**JUANJO** Eta agian, argitzeko komeniko litzaiguke ez nahastea. Eta orduan, nik uste dut gaur egun ekonomiari buruz hitz egiterakoan kontsumoa derrigorrezkoa da. Ezinbesteko baldintza, ekonomia, ibilia da. Bueno, dena den, hori egia izan arren, hori ez da beti onerako izango. Ez du zergatik izan behar kontsumo handia gizarte baterako ona nahiz eta etekin ekonomiko asko lortu. Demagun horrek kutsadura handira eramaten gaituela, adibidez. Orduan, bestelako kriterio batzuk ere hori gurutzatuko lukete, ezta? Niri, ba, egia esan... ni pentsatzen egon naiz hona etorri baino lehenago, agian niri dagokidana da, fenomeno soziala da eta nik uste dut gizakiok sozialak garela batez ere, eta gutxitan erabakitzen dugula gure alderdi idiosinkratikoaren arabera. Askoz ere gehiago zelako erreferentzi talde ditugun, dira oso inportantea. Orduan, nik uste dut erreferentzi taldea, lehen esan dudan bezala, ni baldin banaiz, ba... demagun donostiar betiko kaskarin edo erdigunean bizi den, horrek baldintza batzuetara eramaten nau. Ni kalera ateratzen naizenean halako janzkera eraman behar dut. Normalean gehiengoak hori egiten du, ez denek, gehiengoak hori egingo du. Gutxiengo bat egongo da hori kritikatu eta hankaz gora jarriko duena. Orduan, kontsumo prozesua bera horrelakoa izango litzateke. Hau da, nire testu inguruan zer kontsumo ematen da, zer kontsumo-maila ematen da eta zer kontsumitzen da. Eta nik uste dut, gaur egun ba, gizarteak eramaten gaituela alde batera eta ez da derrigorrez izan behar, nik uste dut, desegokia gaur ematen den kontsumo maila. Nik uste dut denok ados egongo ginatkeela esaterakoan kontsumoa handia dela konparatuz gero duela zenbait urte egiten zenarekin. Hori txarra al da? Ez, ez du zergatik. Nik uste dut horrek asebetetzen bagaitu ondo da. Beste asunto bat da: horrek ez bagaitu asebetetzen eta halako amaierarik gabeko soka bati tiraka ari bagara, orduan kezka sortu daiteke. Eta hori izan zitekeen zergatik nahi dugunaren gainetik kontsumitzen dugu. Edo premia edo gu premia bezala jotzen dugun horren gainetik kontsumitzeagatik.



#### 4. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 14'30"

**ENEKO** Nolabait, bueno, gaur bertan irakurtzen nuen egunkari batean egon dela kongresu bat Zaragozan eta pixka bat ondorioak horiek ziren. Gero eta gehiago kontsumitzailea egozentrikoagoa dela eta kontsumoa gero eta gehiago dagoela lotuta, pixka bat zuk aipatzen zenuenarekin, irudi sozialarekin. Hau da, zuk kontsumitzen duzu zerbait zuk imagen bat emateko. Orduan beti daukagu lotuta zer kontsumitzen dugun zer irudi nahi dugun edo desiratzen dugun ematea. Eta esaten omen dutenez adituak gero eta gehiago nabarmenduko da jokabide hori. Horrek, noski, izango du baita ere ondorioak, ba, kontsumitzeko moduari. Ba, bultzatuko duela, adibidez, denda espezializatuak, denda txikiak, baina baita ere ipiniko dituela baldintzak azalera handiko komertzio horiei. Zer eskaini behar izango du eskaintza bat, oferta bat askoz ere pertsonalizatuagoa.

**JOSE MARI** Nik beste bat... zera aipatuko nuke: kontsumoa beti... pertsonok beti kontsumitu dugu. Pertsonak bizi garenez gero beti kontsumitu dugu, kontsumoa aldatzen doa. Gauza ezberdinak kontsumitzen ditugu: denbora librea, aisia, nahi dena, baina beti kontsumitzen dugu. Gaur egun gauza ezberdinak kontsumitzen dugu: estatus, sinbolo... bueno, horiek ere bai. Baina kontsumoa, adibidez, Euskal Herrian gaur, nik uste dut, gure oporrak sei aldiz urtean egiten ditugu: urteko udarako oporrak, Aste Santuko oporrak eta Gabon inguruko oporrak, eta oporrak ahalik eta luzeenak. Gainera fabrikari zubiak, estrak ahal dena egin eta bueno, 10 egun, 15 egun. Gaizki al dago hori? Txarra al da? Zer oportunitate ematen digu, eta abar. Esan nahi dut, kontsumoa beti dago eta kontsumoa aldatzen doa eta gaur ere bai, gauzak azkar aldatzen doaz. Oporretara destinatzen ari garen presupostua gero eta handiagoa da. Eta edozein zubi zeratzen dugu... gaur bertan egunkarietan irakurtzen nuen ez dagoela lekurik, ba, Gabonetarako Nafarroako... etxeetan ez dago lekurik bidaia zeretan, hainbat programak salduak daude guztiz. Bueno, ba, beste gauza batzuk kontsumitzen ari gara. Nik uste dut kontsumoa aldatzen egokitzen eta gure portaeraren eta gizartearen aldaketen arabera aldatzen doan zerbait dela.

**JUANJO** Gaurko gizartearen alor ekonomikoa markatzen du kontsumoak. Gure harremanak markatzen ditu eta gure

jokabide pertsonalak eta gure... demagun satisfazioa ere neurri handi batean merkatuak-eta kontsumoak markatzen ditu. Orduan, ezinbesteko erreferentzia dugu. Dena den, lehen bururatu zaidan beste gauza bati heltzera noa: zuk lehen esan duzun galdera lehen eta orain aldaketa ez ote den oso handia. Eta ni pentsatzen nengoan nola neurtu daitekeen aldaketa hori. Eta jo egin beharko genuke ziur aski ratioetara. Hau da, garai batean, demagun... ez dakit, jendeak ahal zuenetik zenbat gastatzen zuen? Eta gaur egun ahal duenetik zenbat gastatzen du? Zeren termino absolutuetan ezin dugu esan gehiago edo gutxiago, baizik eta termino erlatiboetan. Orduan, nik uste dut fenomeno bat eman dela: gure gizartea aberastu egin da. Nik esango nuke, ni ez naiz ekonomilaria, baina nik uste dut gure gizartea aberastu egin dela eta gizartea aberastu da eta gizarte horretako partaideak ere aberastu egin gara. Pentsatzen badugu duela 30 urte, jende gutxi zuen aukera bere mahaian berebiziko eta gauza pila jartzeko aukera. Otorduak eta afariak eta nahiz eta egun seinalatukoak izan ziren askoz ere mugatuagoak. Gaur egun hori zabaldu da izugarri. Orduan, batetik, nik uste dut garapena eman dela gizarteak dituen ondasunetan, izugarritzako. Eta orduan nik uste dut gizabanakook gastatu dugula, lehen zuk esan duzun bezala, ahal dugunaren neurrian. Lehen ez genuen gastatzen ez balioak genituelako, baizik eta ondasunik ez genituelako, ziur aski. Eta orain ondasunak ditugu eta gastatzen ditugu. Niretzat galdera... hori nahiko lege bezala ikusten dut nik. Niretzako galdera da ea esklabo ala libre garen erabakitzeke, ba bueno, nik hau kontsumitu nahi dut edo ez. Ni naiz neurri batean, ba, inguruan menpe dagoen bat, ezta?

JOSE MARI

Eta noiz gara esklaboago dugunean edo ez dugunean? Nor da esklaboago, ondasuna duena edo ondasunik ez duena? Eta akordatzan ari naiz, ba, ez dakit, nomadak bizi duten bizitza, zer egiten dute? Nola pasatzen dute eguna? Zein da helburua? Azken batean ura bilatzea, ura ekartzea eta handik edo hemendik zerbait, janari apur bat eskuratzea. Hori da helburua eta ez dago beste... ezinbestekoa da. Eta denbora, egun guztia nola organizatzen da? Ba, horren arabera. Esklabo al da? Ez dakit. Kontsumitzen al du?

ANTXON

Esan dugun guztiaren harian pertsonaren askatasuna, planteatu beharra daukagulako, kontsumitzailearen askatasuna azken batean. Hain libreak ote gara gure kontsumoan? Ala alderantziz, hainbat faktore, nahi duzuen: ekonomiko, soziologiko eta psikologikoez baldintzatzen dituzte erabat gure kontsumo ohiturak, hau da, askatasuna. Libreak al gara? Hain libreak al gara kontsumoan?

JUANJO

Ez, nik uste dut ez garela... gure libertatea oso murrizta dela, benetan esanda. Baldintzatzen gaitu, noski, testuinguru ekonomikoak baldintzatzen gaitu gure taldeak gehienbat, eta orduan... eta gero nik uste dut, gure pentsamoldea osatzerakoan zer indar dagoen jokoan. Lehen aipatu da publizitatea, mass-mediaren eragina izugarria da eta zelako inbertsioa egiten da hor zeren enpresek badakite, eta adibide pila bat dago eta badakite inbertsio halakoa... nolakoa, kontsumoa halakoa. Hori nahiko ekuazio garbia da, orduan, hori batetik eta enpresari inporta zaiona da saltzea. Gero ematen den hori... bueno, zerbitzu egokia da, egokiena da, agian mugatu egin beharko litzateke... bueno, hori ez zaio hainbeste axola zeren bera beste funtzio batetara bideratuta dago. Orduan, horren aurrean eta indar boteretsu horren aurrean gizabanakook eta nahiz eta izan talde batzuk, kontsumo talde batzuk eta nik uste dut indar gutxi dutela, bestelako informazioa gizaratatzeko. Gizarteari ez zaio iristen, nik uste dut, informazio kritikoa, edo garai batean eta zenbait testuingurutan aipatu izan dena kontsumo arduratsua, responsablea. Eta nik uste dut, bueno, gutxienez, jendeak jaso beharko lukeela informazio anitza esaten diona: hik kontsumi ezak hau eta halako gauzak lortuko dituk, zeren sar gaitetzen bide horretatik, zelako publizitatea egiten da gaur. Niri orain burura datorkit duela urte gutxi kotxe batek esaten zuen, gaztelaniaz, nik uste dut euskal telebista ez zegoela, edo ni gogoratzen naiz, behintzat, erdaraz zela, esaten zion: *no seas modesto*, eros ezak kotxe hau. Orduan, nori ukitzen dio? Ukitzen dio gure alderdirik sakonenari, muineraino. Hik izan nahi baduk benetako pertsona... zuzendua zegoen gizonentzat, jakina, nahi dut zabaldu, ezta? Izan zaitetz pertsona eta ez zaitetz kikildu, eta kontsuma ezazu hau.

JUANJO

Agian, hirian bueltaka ibiltzeko kotxea du eta erosten du Madrilera egunero joango balitz bezalako kotxe bat. Orduan, zeinek egin behar du hori? Eta ni beldur naiz eta ote garen gehiengo behintzat erortzen mezu handi horietan nahiz eta gure premiak eta gure, bueno, gure premiak ase beste kontsumo mota batekin. Esaten ari naiz, zelako kotxea erosi? Albokoak duena, publizitateak esaten didana edo ni gai naiz esateko: ez nik kotxe txiki bat behar dut, eta hori zenbat eta txikiagoa hobeto aparkatzen dut. Orduan... baino publizitateak, batzuk salduko didate hori, baina hori ez da gehiengo, hori ez da zabalduena.

ANTXON

Eta batzuk esaten dute, bueno, kotxearen gainean, halako konpentsazio gauzak eta ematen direla, ezta?

JUANJO

Baina nik uste dut orokorrean ere ez dugula zentzu behar hainbesteko kritikoa landua. Eta orduan morrontza batean bizi garela.

ENEKO

Eta bueno, horretan, ba, bai, kontsumidoreen elkarteek dute paper handia, nahiz eta beste... komunikabideak baita ere. Askotan, orain arte, kontsumitzailea oso desinformatua egon da, eta

beharbada informazioa heltzen zitzaion... informazio bakarra, ba, publizitate jakin batetik zetorkion eta gaur egun badaude kontsumitzaileen artean eta bakoitzak badugu askoz ere errazago hedatzeko informazio hori, produktu horiei buruz. Ez dakit, hemen Eroskiko errepresentate bat badugu, beraiek ere saiatzen dira informazio hori ahalik eta modu zuzenean ematen eta bueno, pentsatzen dut gero eta gehiago kontsumitzaileak exijitu egingo dugula produktu horiei eta zerbitzuei buruz informazioa. Horrek ekarriko du baita ere, eskakizun bat kalitate aldetik, enpresei, egiten dutenei produktuak. Kontutan izan behar da enpresentzako erregea klientea dela, azkenean klientea, ba, bezero indibiduala da, eta enpresek ere horretan asko pentsatu beharko dute, asko razionalizatu egin beharko dute zer nola egiten duten beraien produktuak eta zer-nolako kalitate neurria jartzen dioten.

JOSE MARI

Nik uste dut ahulezia sakonena hor dagoela, informazioan. Eta datuak edukitzea nik nahi dudana, ahal dudan neurrian egiteko. Nik uste dut hori dela. Nik nahi badut kontsumo mota bat egin, oportunitate, aukera hori edukitzea. Nik uste dut erronka, bakoitzaren erronka hori dela. Eta gaurko gizartearen aberastasunik nagusia hori dela. Gaur datu batzuk ikusi ditut eta, adibidez, Interneten bidez, on-line erosketak izugarritzko abiadura daramate. Ingalaterran % 20... gaur kontsumoa gabonetako produktuen kontsumoa Interneten bidez egiten dira. Eta nik gauza bat esango dizuet: Internet-eko azterketa bat egiten baduzu Gabon inguruko produktu zerekin, zuzenbideetan, denetarik aurkitu daiteke, nora joan hori nire aukera da. Aukera hori nik lehenago ez nuen eta gaur egun badut. Nik uste dut gure aberastasuna eta gizarte honen aberastasuna hortik datorrela, balorazio batzuen arabera, juizio batzuek egitea, niri kostatzen zait pausu hori ematea eta ni horretan oso... jendea errespetatzen saiatzen naiz.

ANTXON

Adibide txiki bat da, baina beharbada Gabon jai hauetan kontutan hartzeko modukoa. Gabon jaietan egiten dugun jan-edaneko gastuaren erdia, %50 aurreztu omen daiteke erosketa horiek orain, oraintxe bertan, aldeztu aurretik eginda. Detalle txiki bat, baina beharbada ez hain txikia zenbait falimiarentzat.

JOSE MARI

Eta horrek, presupuesto horrek suposatzen du %40, beraz, horrek esan nahi du nere Gabon... nire abenduko soldatetik %20 aurreztu dezakedala, gaur oraindik oportunitadea daukat aurtengo gabonetan nire soldataren %20 aurreratzeko, gauza berdina jan eta erosiaz. Zergatik ez dugu hori egiten?

ENEKO

Nik uste dut Gabonak eurak direla gertakaera sozial bat, eta orduan, ez dakit, tradizio, gertakaera horren parte bat da Gabon inguru egun horietan, edo Gabon egunean, Gabon bezperan erosketak egitea. Hori oso finkatua dago.

ANTXON

Errito bat izango da.

ENEKO

Bai, errittoa, bai.

JOSE MARI

Utzidazue halako hitz mordo bat, Gabon ingurukoak: oporrak, zubia, jaia, familiarteko batzarra, lagunarteko oporrak, erregaliak, Olentzero, Errege, Jaiotza, zuhaitza, loteria, bazkari, afari, kotiloi, Gabonak, Urtezaharrak, Urteberri, Errege...

ENEKO

Larregi!

ANTXON

Hiztegi, hiztegi osoa.

ESATARIA 2

Eta horiek guztiak pasa eta gero porrusalda eta jende guztia korrika, kilo guztiak botatzeko.

ESATARIA 1

Ba, kontsumitu dugu, ezta? gaurkoa, ezta? Ba, mila esker Juanjo Arrospide, Jose Mari Larramendi eta Eneko Astigarraga hemen *Salako Leihoraino* etortzeagatik.

ESATARIA 2

Gabon on batzuk izan ditzazuela!

## 3. IKASLEAREN FITXAK

### 1. fitxa

#### Norvegia: kandelak, iratxoak eta elurra

Norvegiarrek kandela-argi eta etxe-txokoko suarekin lotzen dituzte Eguberriak. Abenduaren 13an, Santa Luzia egunez, hasten dira eguberri-aurreko ospakizunak eta gau horretan Eguberrietako lehen afari berezia izaten dute etxeko animaliek. Norvegiarrek otarrez, linu-abarrezko koroaz eta pinu-buru edo intxaurrez egindako iratxo-irudiz apaindu ohi dute etxea. Eguberri eguneko ospakizuna abenduaren 24ko arratsaldeko 5etan hasten da. Norvegiako etxeetako mahaian ez da falta izango arroz-ahia, barruan almendra bat gordeta duena, aurkitzen duenari zortea emateko. Izokina, bakailaoa, haragi-albondigak, elur-orein pateaa ahabiekin, baia-krema. eta garagardoa eta *akevitt* -Norvegiako pattarra- erruz; horixe da eguberri garaiko gastronomia norvegiarra. Afalostean, Gabonetako arbola piztu eta *julenisse* edo Eguberri egunean Papa Noél bihurtzen den eguberri-iratxoaren zain geratzen dira haurrak.

### 2. fitxa

#### Australia, Eguberria uda-udan

Australiako Eguberriek Paris, London edo New Yorkek adina glamour izaten dute; baina hiri horietan hotza eta elurra nagusitzen diren bitartean, Australian eguzkia bete-betean eta 25-38 gradu zentigradu bitarteko tenperatura izaten dute. Abenduaren 25aren aurreko egunetan *Carols by Candlelight* (Gabon kantak kandela argitan) izeneko kontzertura joan ohi da familia asko, estalkiak eta kandelak hartuta; Australia guztiko parke eta kiroldegietan ospatu ohi diren ikuskizun jendetsuak dira. Ospakizunaren osagarri gisa, picnic-ak egiten dira parke, lorategi eta hondartzetan. Menua: itsaskia, urdaiazpiko gozoa, entsalada, haragi hotza eta pudin beroa arrautza-esnearekin. Antipodetan, kapela, tirantedun kamiseta urdin iluna eta galtza motz handiak soinean dituen Santa Claus berezia etortzen zaie haurrei: *Swag Man* izenekoa.

### 3. fitxa

#### Italian dilistak nahiago Urtezahar-gauean

Gabon gauean ohiko *cenone* (afari handia) ospatzeko biltzen dira italiarrak, menua leku batetik bestera apur bat aldatu ohi den arren: pasta beteak kapoi-saldatan egosia, spaghettiak, aingirak, barazkiak eta turroia. Gau horretan bertan Papa Noél-en bisita izaten dute haurrek. Baina opari gehiago ere izaten dute: urtarrilaren 5ean Befana izeneko sorgin onak ekartzen dituenak. Gabonzahar-gauean, mahatsaren ordez dilistak jaten dituzte, urte berriari zorte ona eskatzeko. Zorte ona ekartzen duen beste ohitura bat lentzeria gorria oparitzea omen da. Iragan amaituaren sinbolo gisa traste zaharrak leihotik behera botatzeko ohitura ere oso errotuta dago, batez ere Erroma eta Napoliko herritarren artean.

### 4. fitxa

#### San Nikolasek eramaten ditu Eguberriak Alemaniara

Alemaniako haurrek San Nikolasen bisita izaten dute abenduaren 5etik 6rako gauean. Baina hark ekarritako **opariak** ez dira abenduaren 24ra arte irekitzen. Zuhaitzaren argiak piztu eta gabon kantak abestu ondoren irekitzen dira **opariak**. Santa Barbararen adar, goroldio eta intxaur margotuekin apaindu ohi dute alemaniarrek etxea Eguberrietan eta mahaiak janariz gainezka izaten dira: antzarrak sagarrez beteak, txerri-haragi errea, ilarrak, arraina, sagar erreak, pontxea eta rona. Urteko azken egunean San Silbestre izaten da protagonista. Haren ohoretan edaria erruz izaten da eta suzko gatzeluak erretzen dituzte izpiritu gaiztoak uxatzeko.

## 5. fitxa

### Errusia: Matriuskak txikientzat

Eliza ortodoxoaren egutegia segitzen dute eta horregatik, egun batzuk geroago izaten dira ospakizunak. Errusiako etxeetan hamabi plater izaten dira Eguberri gaueko afarian, plater bat apostolu bakoitzaren omenez. Arraina eta erremolatxa-zopa izaten da herrialde hartako gabonetako jaki nagusia. Urteberri egunean Izotzezko Aitona edo Maroz-en bisita izaten zuten Errusiako hurrek; Papa Noël bezala, agure bizar-zuria da, arropa gorri handiz eta bota beltzez jantzia. Pertsonaia maite horrek laguntzailea ere izaten du, Elurrezko Neskabila, eta jostailuak (txikienei bakarrik), jengibreko pastelak eta *Matriuskak* (barruan panpin txikiagoak dituzten panpin errusiarak) partitzen ditu.

## 6. fitxa

### Mexikon, Posadak eta Gauerdiko Meza

Mexikon abenduaren 16an hasi ohi dira Eguberritako ospakizunak Posadas izenekoekin (San Josek eta Birjinak Belenerako bidaiari ostaturak aurkitzeko izan zituzten arazoak gogorarazteko antzezpenak). Bederatzi egunetan zehar, Gabon-gauera arte, eguberritako ohiturak gorde zale diren familiek euren etxean egiten dute txandaka posada edo ostaturak. Antzezpenaren ondoren, jaiari ekiten zaio: umeek Satanas irudikatzen duen gozo-eltzea apurtzen dute, laranja, mandarina, azukre-kaina eta mani fruituz betea. Eguberri-gauean, meza ondoren egiten da afaria. Gauerdiko Meza edo elizkizun hori urtearen azken egunean ere egiten da. Egun horretan etxea erratzez garbitzeko ohitura dago, zortea garbi sar dadin. Errege Eguna Estatu espainiarrean bezala ospatzen da, errege magoei ongietorria egin eta erroskoa janz.

## 7. fitxa

### Brasil, Copacabanako olatuen artean

Brasilgo Eguberriaren ospakizunetan garrantzi berezia du itsasoak. Eguberri-gauean suzko erruberaz argitzen da Ipanema eta Copacabanako hondartzetako zerua. Copacabana ospetsuan, "*filhas do santo*" direlakoek (apaiz emakume afrikarrek) kandelak piztu eta lorez eta opariz beteriko txalupa txikiak botatzen dituzte itsasora. Itsasoak eramatea seinale ona da, Yemanjá Itsasoetako Jainkosak urte berria bedeinkatu egiten duela esan nahi baitu horrek. Jainkosa horrek bedeinkatu egiten ditu Salvador de Bahia-ko bizilagunak, zuriz edo urte berriko candombé santuaren kolorez jantzita, itsasoan oinak bustitzen dituztenean.

## 8. fitxa

### Japonian etxeak garbitu ohi dira

Abendua iristean, zorrak kitatu, etxeak eta ondasunak garbitu eta jantziak berritzen hasten dira japoniarrak, urte berriaren hasierako prestakuntza gisa. Abenduaren 31n *Omisoka* edo Urtearen Amaierako Egund Handia ospatzen da. Ohiturak dioenez, etxearen garbiketa berezia egin behar da egun horretan eta gero familia osoarekin batera fideo-katilukadak jan, bizitza luzearen sinbolo gisa. Tenpluetako kanpaiek errepikaz urtearen hasiera iragartzen dutenean, japoniarrak hurbileneko santutegi sintoistara joaten dira, ohiturari jarraiki. Japonian urtarilaren 4an amaitu ohi dira eguberritako ospakizunak.

## 9. fitxa

**Indian apirilean hasiko da urte berria**

Abenduaren 25ean jai nazionala ospatzen da Indian eta herrialde hartan bizi diren 20 milioi kristauek Eguberria ospatzen dute, mendebaldeko ohiturarei jarraituz. Urte Berria, hala ere, egutegi hinduaren arabera ospatzen da, apirilaren 20an, su handi eta errito-bainuekin. Egun horretan miloika erromes bainatzen da Ganges ibaian edo putzu eta urmael sakratuetan. Baina Eguberrien antzik handiena duen festa hindua, desberdintasun espiritualak gorabehera, *Diwali* izeneko da. Ospakizun horretan *Lakshmi*, aberastasun eta oparotasunaren jainkosa, gurtzen da eta adiskide eta senideak bildu egiten dira, jokoan egin eta elkarri opariak egiteko.

## ATAZA: HAURREN GOZAMENA

### 1. GABONAK MUNDUAN 110'

#### Helburu nagusia:

- Gabonak ospatzeko modu ezberdinak alderatzea eta kanpotik ekarritako ohiturei buruz eztabaidatzea.

#### Helburuak:

- Testu idatzia berreraikitzea informazioa egituratzeko emandako irizpideei jarraituz.
- Testuetatik erauzitako informazioa erabiliz irratiko magazina egitea.
- Hipotesiak egitea testuen edukiaren eta egituraren gainean.
- Taldekideek egindako testuen artean xede komunikatiboa hobekien erdiesten duena hautatu.
- INTERNETen dauden materialak modu autonomoan erabiltzea.

#### Zertan den:

- Lehendabizi, Gabonak ospatzeko ditugun ohiturak zerrendatuko dituzte ikasleek. Gero, munduko beste tokietako ohiturei buruzko informazioa irakurriko dute, horrela, hemengo eta kanpoko ohiturak alderatu ahal izateko. Eta, azkenik, kanpotik ekarritako ohitura bat deskribatu ondoren, kanpoko ohiturak geurera ekartzeari buruz eztabaidatu beharko da.

### PROZEDURA:

# 1

#### Atazaurrea

- Gabonak ospatzeko ditugun ohiturak zerrendatuko dituzte ikasleek, liburuan duten taula erabilia. (5')

#### Ataza: munduan Gabonak ospatzeko dauden ohiturei buruzko irratsaioa grabatu

- Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu (A taldea eta B taldea). Talde bakoitzeko ikasleek munduko ospakizunen fitxa \*\*\*\*\* bana izango dute (ikus 3.3. eranskinak irakaslearen liburua). Talde bakoitzean gehienera bost ikaslek hartuko dute parte. Ikastaldea hamarretik gorakoa izanez gero A1, A2, B1, B2... taldeak antolatuko ditugu. Taldekide bakoitzak dagokion fitxa irakurri eta taulako hutsuneak beteko ditu. (5')
- Taldekideei informazioaren berri emango diete beharrezkoak diren xehetasunak erantsita. (10')
- A eta B taldeak elkartu egingo dira eta irratsaioa antzetzuko dute. Irakasleak esatariaren lana har dezake bere gain edota beste norbaiti eman diezaioke. Esatariak, txandaka, munduko korrespontsal ezberdinei emango die hitza. Beste taldeko kideen irratsaioa entzun ahala apunteak jasoko dituzte. Irratsaioa grabatzea komeni da. (20')

#### Feedbacka

- Grabazioak entzun eta alderatu ikaskideen azalpenak, ikaslearen liburuan duten kontrol-fitxa erabilia. (20')

# 2

#### Atazaurrea

- Liburuan duten taulan jasoko dituzte geureekin antza duten ohitura batzuk eta desberdinak direnen artean gustuko izan dituzten batzuk. (5')

#### Ataza: kanpoko ohiturak geure artera ekartzearen inguruan eztabaidatu

- Halloween festari buruzko ahotsik gabeko bideo-pasartea ikusiko dute (6. bideo pasartea). Eztabaidatuko dute zein ospakizuni dagozkion irudiak eta taula osatuko dute. (10')

\*\*\*\*\* Gabonak munduko leku batzuetan. *Consumer elektronikoa*. 12. zenb.



### Feedbacka

- Bideoa ahotsa eta guzti ikusiko dute eta egiaztatuko dute asmatu dutenentz (7. bideo pasarte). (5')

### Atazaostea

- Ospakizun hori buruan, eskatuko diegu kanpoko ohiturak geure artera ekartzeari buruzko iritzia eman dezatela. (5')

## 3

### Atazaurrea

- Interneten Olentzeroren web-orrira \*\*\*\*\* aztertuko dute. (10')

### Ataza: alderatu garai bateko eta oraingo ohitura batzuk

- Orri horretan aurkitu behar dute garai bateko ospakizunari buruzko xehetasunak eta liburuan duten taulan jasoko dituzte egungoekin duten aldea. (15')
- Datuak aurrean eskatuko diegu berrazter ditzatela aurreko jardueran kanpoko ohiturak geure artera ekartzeari buruz esandakoak. (5')

### Feedbacka

- Olentzeroren orriaren inguruko iritzia ere eman dezakete: nolako trataera ematen dion gaiari, egokia iruditzen zaien... (5')

## MERKEALDIEN ZURRUNBILOAN

### 2. LEGE-AHOLKULARITZA SAREAN



#### Helburu nagusia:

- Lege-aholkuak ematen dituzten testuak ulertzea eta ikaskideekin komentatzea.

#### Helburuak:

- Testuen (ahozko eta idatzien) edukia eta antolaketaren gaineko aurreikuspenak egitea.
- Eskutitzaren gaia asmatzea, emandako erantzuna ezagututa.
- Irratsaio baten testuinguruan entzuleen kontsultei erantzutea ahoz.
- Aldizkari elektronikoko baten eduki eta egitura aztertzea.
- Interneten dauden materialak modu autonomoan erabiltzea.

#### Zertan den:

- Hitz batzuk definitu behar dira ataza honetan, gero, aditu batek ematen dituenekin alderatzeko. Bestalde, erositakoarekin gustura ez dauden pertsonen kasuak aztertzeko aukera dago, baita Consumer aldizkariak ematen dituen zerbitzuak ikusteko ere.

### PROZEDURA:

1

#### Atazaurrea

- Ikasleek “merkealdia”, “saldoa” eta “likidazioa” definitzen saiatuko dira. Idatziz emango dute bakoitzaren definizioa. (10')
- Proposamen guztien artean bakarria hautatuko dute hitzeko eta arbelean idatziko du irakasleak. (5')

#### Ataza: Adituaren aholkuak jaso

- Bideoan Begoña Muruagak ematen duen azalpena entzungo dute (8. bideo pasartea \*\*\*\*\*). Liburuan dituzten taulak osatuko dituzte entzun ahala. Arreta berezia jarriko diete atazaurrean landutako kontzeptuen inguruan ematen dituen xehetasunei. (30')

#### Feedbacka

- “Merkealdia”, “saldoa” eta “likidazioa” kontzeptuen definizioa berregingo dute adituak esandakoa jasoaz. (5')

2

#### Atazaurrea

- Ikasleek *Consumer aldizkari elektronikoa \*\*\*\*\** zabalduko dute eta taldetxotan aztertuko. Besteei jakinaraziko diete zer iruditu zaien interesgarrien, zein atal izan zaien deigarrien... (10')
- Ikasle-talde bakoitzak aldizkariaren atal bat arretaz aztertzeko ardura hartuko du. Aurkibidean kontsultatuko ditu atal horretan aztertu izan diren gaiak. Zenbait artikulua, adibide... modu autonomoan begiratzeko eskatuko diegu. Ikaskideei atal horretan aurkituko dutenaren berri emango diete. (10')

#### Ataza: Lege-aholkularitza ematen duten testuak irakurri eta komentatu

- Liburuan jaso dira irakurriko duten testuan azaltzen diren hainbat hitz gako. Horien esanahiaz eztabaidatuko dute; behar badute, hiztegi-liburura jo dezatela. Eskatuko diegu, halaber, imajinatzeko zein ote den kontsultaren gaia. (5')

\*\*\*\*\* ETB

\*\*\*\*\* Lege aholkularitza. *Consumer aldizkaria*, 12. zenb.

- Testua behin irakurri eta eztabaidatuko dute liburuan dauden hiru esaldiek zer esan ote dezaketen zehazki kontsultaren testuinguruan. (5')
- Aholku-testuaren mamia ulertuta, eztabaidatu beharko dute zein izan ote den kontsulta. Akuilu gisa irakurlearen galderan agertzen diren hiru esaldi-zati ematen zaizkie. (5')
- Galdera jasotzen duen testu-pasarte emango diegu eta erabaki ahal izango dute beren hipotesia zuzena denentz. (5')

## ZUZENKETA-ORRIA

Emaztegai ohiak ez ditu zorrak ordaintzen

### Gertatu zena

Andregaiarekin nenbilela, kontu korrante bat ireki ganuen eta neu azaltzen nintzen titular nagusi gisa. Aspaldi utzi genuen harremana, baina hilabete batzuk geroago kontu zenbaki horretan 350.000 pezetako zorra nuela jakinarazi zidaten banketxetik, eta nik ez dut kopuru hori gastatu. Andregai ohiak ez ditu zorrak ordaintzen eta titular gisa, neuk ordaindu behar ditut, bestela, abokatueta joko baitu banketxeak. Zer egi dezaket?

## Feedbacka

- *Consumer aldizkariko* beste aleetara jotzeko eskatuko diegu. Hautatu dezatela deigarria iruditu zaien beste kontsulta bat. Irakurri eta ikaskideekin komentatu dezakete horrelako kontsulen baliagarritasuna. (10')

# OHARRAK

A large rectangular area with a light beige background, containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page, providing a guide for text entry.

# OHARRAK

A large rectangular area with a light beige background, containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page, providing a guide for handwriting practice.

# OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing.

Eskuetan daukazun liburuxka HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikas-materialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko ikas-materialak hiru mailatan banatzen dira:

1. maila (aurreneko 6 urretsak gutxi gorabehera) eta bi zatitan banatua:

1 A (1., 2., eta 3.urretsak) eta 1 B (4., 5. eta 6. urretsak).

1 A mailarako ikas-materialak ehun ordu inguruko hiru zatitan banatuko dira

0-100 (lehendabiziko ehun orduak)

100-200 (ondorengo ehun orduak)

200-300 (azkeneko ehun orduak)

2. Maila ( 7., 8. eta 9. urretsak);

3. maila ( 10., 11. eta 12. urretsak).

### **BARRENDIK (1 A Maila)**

#### **200-300 ordutarako materiala**

- Gogozko tokian aldaparik ez
- Eskulanak
- Garai modernoak
- Pisukide berria

### **BARRENE (1B mailarako materiala)**

- Ni Tarzan... zu Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)
- Beti gose, ezin ase (9. ikastunitatea)
- Eguberri on (10. ikastunitatea)
- Txutxu-mutxuak (11. ikastunitatea)
- Hego haizea, ero haizea (12. ikastunitatea)
- Betiko topiko tipikoak (13. ikastunitatea)
- Gaueko berotasunean (14. ikastunitatea)
- Erne ibili (15. ikastunitatea)
- Lanak ematen digu lana! (16. ikastunitatea)
- Bizkaia maite (17. ikastunitatea)
- Bapo jan eta zorionekoa izan (18. ikastunitatea)

### **BARRENET (2. mailarako materiala)**

- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitsa (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)
- Urtean joan, urtean etorri (9. ikastunitatea)

### **BARRENKALE (3. mailarako materiala)**

- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lévi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurrak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)
- Besteak hor konpon (9. ikastunitatea)
- Ikusi-makusi zinera-jauzi (10. ikastunitatea)

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**


ISBN 84-86968-47-X



9 788486 968472



# urtea joan, urtea etorri



barrenet 9. ikastunitatea  
2. maila  
irakaslearena